# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ALDAKETAREN INGURUMEN INPAKTUAREN BATERAKO EBALUAZIOARI BURUZKO AZTERLANA

**(ISURIALDE MEDITERRANEOA)**

2007KO AZAROA

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ALDAKETAREN INGURUMEN INPAKTUAREN BATERAKO EBALUAZIOARI BURUZKO AZTERLANA
**(ISURIALDE MEDITERRANEOA)**

## AURKIBIDEA

0.- SARRERA .......... 1

1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN (ISURIALDE MEDITERRANEOA) ALDAKETAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK

- 1.1.- JARDUN ESPARRUA ETA DENBORA IRITSIERA .......... 5
- 1.2.- PLANAREN ALDAKETAREN HELBURUAK ETA AINTZAT HARTUTAKO INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK .......... 5
- 1.3.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK .......... 7
- 1.4.- PLANAREN PROPOSAMENAK .......... 8
- 1.5.- BESTE PLAN BATZUETAKO ARTEZTARAUEKIN ETA IRIZPIDEEKIN LOTZEN DIREN ZEHAZTAPENAK .... 8
- 1.6.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUNEN IDENTIFIKAZIOA .......... 9
- 1.7.- PLANA GAUZATZEKO FASEAK .......... 10
- 1.8.- HAUTEMAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK .......... 10
- 1.9.- HERRITARREN PARTE HARTZEA .......... 10

2.- BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN AZTERKETA

- 2.1.- PLANAREN EDUKIEKIN ETA, ONDORIOZ, ALTERNATIBEN SORRERAREKIN ELKARRERAGINA IZAN DUTEN ETA JADA EBALUATU DIREN HIERARKIKOKI GORAGOKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANEN EDO PROGRAMEN ARTEZTARAUAK ETA IRIZPIDEAK IDENTIFIKATZEA .......... 11
- 2.2.- INGURUMEN ARLOKO, NATURA BALIABIDEEN KONTSERBAZIOAREN ARLOKO EDO GARAPEN IRAUNKORRAREN SUSTAPENAREN ARLOKO HELBURUAK ETA KONPROMISOAK (INGURUMENEKO ESPARRUKO PROGRAMA, ETAB.), ADMINISTRAZIO XEDAPENAK ETA LEGERIA, NAZIOARTEKOAK, EUROPAR BATASUNEKOAK, ESTATUKOAK EDO AUTONOMIA ERKIDEGOKOAK. PLANA EDO PROGRAMA LANTZEAN ESTRATEGIA ETA HELBURU HORIEK AINTZAT HARTU IZATEKO MODUAREN AZTERKETA .......... 12
- 2.3.- AZTERGAI DUGUN ESPARRUAN ERAGINA DUTEN INGURUMENA BABESTEKO PLANEN ETA PROGRAMEN IDENTIFIKAZIOA .......... 13

3.- PLANAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

- 3.1.- AZTERGAI DUGUN ESPARRUAREN DEFINIZIOA .......... 17
- 3.2.- INGURUNEAREN DESKRIBAPENA .......... 17
- 3.3.- INGURUMEN BALIABIDE BALIAGARRIAK .......... 18
- 3.4.- LURRALDEAREN INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOEN IDENTIFIKAZIOA, ERTZEN ANTOLAMENDUAREN IKUSPEGITIK .......... 22

4.- PLANEAN AINTZAT HARTUTAKO ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN INGURUMEN EBALUAZIOA

4.1.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK ..... 23
4.2.- EZ ESKU HARTZEKO AUKERAREN INGURUMEN EBALUAZIOA ..... 24
4.3.- ALTERNATIBAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK ..... 24
4.4.- UHOLDE ARRISKUAREN MAILAREN ARABERA LURZORUAREN ERABILERA ERREGULATZEKO HAUTATUTAKO ALTERNATIBAREN DESKRIBAPENA ETA BALORIZAZIOA ..... 25
4.5.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO IRITZIAK ..... 31
4.6.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANEAN AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAREN INGURUMEN EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA ..... 31

5.- PLANAREN JARDUNEN INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
5.1.- PLANAREN HELBURUEN BALIZKO INGURUMEN ERAGINEN AZTERKETA ..... 33
5.2.- PLANAREN JARDUNEN BALIZKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA ..... 34

6.- NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA
6.1.- SARRERA 37
6.2.- INGURUMENEKO ESPARRU PROGRAMAREN HELBURU ETA KONPROMISOETARA EGOKITZEKO PROPOSAMENA ..... 38
6.3.- NEURRI BABESLE OROKORREN PROPOSAMENA ..... 38
6.4.- NEURRI ZUZENTZAILE OROKORREN PROPOSAMENA ..... 41
6.5.- NEURRI KONPENTSATZAILE OROKORREN PROPOSAMENA ..... 44
6.6.- INGURUMEN INPAKTUEN BATERAKO EDO BANAKATUKO EBALUAZIOETAN SARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK ..... 44
6.7.- DESKRIBATUTAKO NEURRIEN BETETZE MAILAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK ..... 45

7.- PLANAREN ONDORIOAK INGURUMEN ARLOAN BERRAZTERTZEKO PROGRAMA
7.1.- KONTROLAREN HELBURUAK ..... 47
7.2.- JARRAIPENAREN MENDE DAUDEN INGURUMEN ARLOKO SISTEMA, ALDERDI ETA ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ..... 47
7.3.- ADIERAZLEAK FINKATZEA ..... 48
7.4.- ADIERAZLE IZAN DAITEZKEENEN ZEHAZTAPENA ..... 48
7.5.- BERRAZTERTZEKO PROGRAMA ..... 52

8.- LABURPEN DOKUMENTUA ..... 53

9.- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA ..... 55

# 0. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluaren arabera, I. Eranskineko A) idatz-zatian aintzat hartzen diren planak ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozeduraren mende daude –plan horien artean dago honako Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa (isurialde mediterraneoa)–. Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren helburua da planaren aplikazioaren ondorioz ingurumenean sortzen diren eraginen analisia eta balorazioa egitea, plangintza-prozesuaren lehen faseetatik bertatik, betiere jardueren ondoriozko ondorio metagarriak eta sinergikoak kontuan izanik, eta aukerarik egokienaren alde egitearren.

Era berean, hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio-esparruan dago aldaketa hau. Arau horren 9. artikuluan ezartzen denez, ingurumen organoak finkatuko du ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren iritsiera, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila, betiere eraginpean dauden administrazio publikoak eta herritar interesdunak identifikatu eta kontsultatu ostean. Horretarako, kasuak kasu aplikatzekoak diren ingurumen-irizpide estrategikoak, ingurumen-helburuen adierazleak eta iraunkortasun-printzipioak barnean hartuko dituen erreferentziazko dokumentu bat jaulkiko du.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak, 2007ko ekainaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde kantauriarra) erreferentziazko dokumentua jaulkitzeko izapideei hasiera ematea eskatu zuen.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa finkatzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren arabera, Ingurumen Sailburuordetzak du planen eta programen ingurumen-inpaktuari buruzko txostenak jaulkitzeko eskumena.

Espedientearen izapideen barruan –eraginpean dauden entitate publikoei kontsultatzeko eta herritar interesdunak identifikatzeko eta horiei kontsultatzeko izapidearen barruan, hain zuzen ere–, 2007ko uztailaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoan iritsiera handia duten hiru egunkaritan argitara emandako iragarkiak aditzera eman zuen prozedurari hasiera ematen zitzaiola eta interesdunek alegazioak igortzeko 30 eguneko epea zutela (abuztuaren 13ra arte). Ondoren zerrendatzen diren entitateei igorri zitzaizkien kontsultak:

- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari
- Kultura Ondarearen Zuzendaritzari
- Larrialdi Zuzendaritzari
- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari
- Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari
- Osasun Publikoko Zuzendaritzari
- IHOBE, Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiari

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lur Antolaketako Zuzendaritza Nagusiari
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari
- Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusiari
- Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Zuzendaritzari
- Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Zuzendaritzari
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzari
- Aranzadi Zientzi Elkarteari
- EHNEri
- Ekologistak Martxan entitateari

Arauzko epea amaitutakoan, ondoren laburbiltzen diren erantzunak jaso ziren:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen aurreikuspenak aplikatzeko modua argitu zuen.

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak aditzera eman zuen proiektua garatzeak ez zuela dagokion arloko inpaktu adierazgarririk sortzen.

- Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak aditzera eman zuenez, Lurraldearen Arloko Planak ertz horietan kokatzen den ondare arkeologikoko katalogoa hartu beharko du aintzat, baita kultura-ondasun kalifikatu gisa, ondasun inbentariatu gisa edo ustezko gune arkeologiko gisa izendatzen duen dokumentuan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean katalogo horretako elementu bakoitzari ezartzen zaion babes-erregimena ere. Horren lekuko gisa burdinolak eta horien instalazio erantsiak aipatzen ditu isurialde kantauriarrerako, eta Iruña-Beleia, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen hiri erromatarrik garrantzitsuena, isurialde mediterraneorako.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak honako iradokizunak gaineratu zituen:

    1) Ondare arkeologikoa zehazki txertatzea kultura-intereseko elementu gisa.
    2) Kultura-intereseko elementu guztietan bateragarri egin behar izatea kultura-ondarearen helburuak eta Lurraldearen Arloko Planaren araudia, legez babesten dien elementuetara mugatu gabe.

- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren iritziz, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanak honako puntuak hartu behar ditu barnean: nekazaritzaren arloko eragina ebaluatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren V. Kapituluan ezarritakoaren arabera; eta arreta berezia jartzea nekazaritza-erabilerei, oro har, eta Lurraldearen Arloko Plan horrek balio estrategiko handiko nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko azpikategoriaren barruan biltzen dituen lurzoruei.

- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak adierazi zuenez, Lurraldearen Arloko Plana 1999an onartu zenez geroztik ezarri diren biodibertsitatea kontserbatzeko neurriak txertatu behar zaizkio Lurraldearen Arloko Planari, hala nola Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa onartzearen ondoriozkoak, hainbat espezie kudeatzeko planen ondoriozkoak eta ibai-sarearen konexio-zeregina hobeto ezagutzearen ondoriozkoak.

  Horrela, biodibertsitatea babesteko irudiren baten eraginpean dauden Arabako isurialde mediterraneoko ibai-tarte guztien zerrenda gaineratu du:

  1) Natura 2000 Sarean sartzen diren Arabako isurialde mediterraneoko ibai-sistemak.
  2) Arriskuan dauden zenbait espezie kudeatzeko interes berezia duten eremu gisa izendatzen diren Arabako isurialde mediterraneoko ibaiak edo ibai-tarteak. Espezie horien artean daude: uhalde-enara, ibai-kabuxa, bisoi europarra, igaraba, iparraldeko katxoa eta mazkar arantzaduna.
  3) Beste espazio babestu edo katalogatu batzuetan dauden ibaiak edo ibaia-tarteak (Parke Naturaletan daudenak, Natura 2000 Sarean daudenak, Arabako Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan daudenak eta Arabako Lurralde Historikoko Konektagarritasun ekologikoari eta paisajistikoari buruzko Azterlanean daudenak).

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak honako oharrak, besteak beste, egin ditu:

  1) Ingurumen-arloan egokia deritzo egiturazko neurriak hartzeari, hala nola uholde-arriskuak saihesteko erabilerak arautzeari. Horrez gain, eta urpean gera daitezkeen zona finkatuetan uholdeen aurrean segurtasuna areagotzeko, ibilguen parametro hidromorfologikoetan eraginik sortzen bada, Uraren Esparru Arteztarauaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Legearen ingurumen-helburuak ez betetzearen arriskuaz ohartarazi du.
  2) Uholde-lautadak dituzten ertzetan 100 metrotik gorako zabalerako antolamendu-zerrenden zabalera gehitzea iradoki du, urpean gera daitekeen lurzoruaren osotasunean erabilerak arautzearren.
  3) Proposatzen den aldaketak honako xedapen hauekin bateragarria izan behar duela eman du aditzera: Ebro ibaiaren Plan Hidrologikoarekin, uholdeen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko arteztarau-proposamenarekin, eta beste batzuekin –arreta berezia eskaintzen dio Uraren Esparru Arteztarauari–. Uraren Esparru Arteztarauari dagokionez, Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenek ibaien egoera ekologikoan izango duten inpaktua baloratu behar dela adierazi du, eta honako alderdiak nabarmendu ditu:

     a) Egoera ekologikoa sailkatzeko, Uraren Esparru Arteztarauaren V. eranskinean ibaietarako definitutako adierazle hidromorfologikoak erabiltzea gomendatzen du, batez ere "ur-bazterreko zonaren egitura" adierazlea.
     b) Uholdeen aurkako babesak planteatzeko aukera ematen duten kasuen

tratamendua.

c) Gaur egungo Lurraldearen Arloko Planaren ubideratze-proposamenen tratamendua.

4) Alternatibak baloratzeko zenbait ingurumen-irizpide proposatu ditu, hala nola uholde-arriskua gehitzea edo Lurraldearen Arloko Planaren osagai hidraulikoko proposamenek ibaien egoera ekologikoan duten eragina aintzat hartzea.

5) Lurraldearen Arloko Planaren araudiari buruzko zenbait iradokizun egin ditu, eta horien artean dago 10 urteko birgertatze-aldiko uholdeetan urpean gera daitezkeen lurzoruak sailkapenaz kanpo uztea.

6) Hiri-esparru finkatuetako uholde-arriskuari irtenbidea emateko sortu diren hustuketa-ubideak Lurraldearen Arloko Planean aztertzeko komenigarritasuna adierazi du.

- Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak egokia deritzo Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan Uren Zuzendaritzak planteatutako lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak txertatzeari.

Azkenik, herritar interesdunen identifikazioari eta kontsultari dagokionez, inork ez du publiko interesduntzat jo dadin eskatu.

Entitateei eta herritar interesdunei kontsultak egiteko prozesua amaitu eta espedientearen dokumentazioa aztertu ostean, eta hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluan aurreikusten den izapideari jarraituz, Ingurumen Sailburuordetzak 2007ko urriaren 24ko Erabakia igorri du. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (isurialde kantauriarra eta mediterraneoa) aldatzeko bi espedienteei dagokien ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluaziorako erreferentziazko dokumentuak formulatu dira, ingurumen-ondorio hutsarekin, Erabaki horren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) Azterlan honek 2007ko urriaren 24ko Ingurumen Sailburuordetzaren Erabaki hartan adierazitako jarraibideak eta adierazpenak biltzen eta betetzen ditu.

# 1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN (ISURIALDE MEDITERRANEOA) ALDAKETAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK

## 1.1.- JARDUN ESPARRUA ETA DENBORA IRITSIERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) jardun-esparrua bat dator indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planaren jardun-esparruarekin. Horrenbestez, honakoek osatzen dute jardun-esparrua: arro hidrografiko mediterraneoko ur-ibilgu guztietako –sortzen direnetik urak Ebro ibaira isurtzen dituztenera arte– bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek, Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatzen duen Ebro ibaiaren tartearen ezkerraldekoak barne; eta urtegien inguruan 200 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek.

Jardun-esparru horretan sartzen dira Puron, Omecillo, Ega, Araia eta Ebro ibaien arroetako Arabako Lurralde Historikoko zatiak, Baia ibaiaren arroan dauden Bizkaiko hainbat udalerritako lurrak eta Zadorra ibaiaren arroan sartzen diren Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udalerritako lurrak.

Lurraldearen Arloko Plan honen aldaketaren zehaztapenak xedapen mugagabe gisa txertatu dira, aurreragoko berraztertzeko prozesuen kalterik gabe edo Lurraldearen Arloko Planaren osotasunaren edo horren zati baten beste aldaketen kalterik gabe –betiere indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planaren Araudiaren G.6. puntuan aurreikusten den erregulazioaren arabera–.

## 1.2.- PLANAREN ALDAKETAREN HELBURUAK ETA AINTZAT HARTUTAKO INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ondorio horietarako landutako baldintza teknikoen orrian aditzera ematen den bezalaxe, Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan honako alderdi hauek txertatzean dautza Aldaketa honen helburuak:

- Berriki egin eta homologatu diren azterlan hidraulikoak eta Uren Zuzendaritzak landutako "azterlan hidraulikoen diseinu teknikoko irizpideen" dokumentua abiapuntu izanik, Uren Zuzendaritzak landutako uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak txertatzea.
- "Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak" lurralde-ereduan txertatzea, Lurraldearen Arloko Planean definitutako ibaien eta erreken ertzak antolatzeko.
- Natura 2000 sarean ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako espazioetarako berariazko erregulazioa txertatzea, eta espazio horiek identifikatzea eta kokatzea.
- Lurraldearen Arloko Plana Europar Batasunaren urriaren 23ko 2000/60/EE Uraren Esparru Arteztaraura egokitzeko irizpideak barnean hartzea.
- Araudi-arloko egokitzapenak egitea.

- Hautemandako hutsak zuzentzea.

Lurraldearen Arloko Planaren gai-arloko ezaugarriak direla eta, planteatutako helburu guztiek eta Aldaketaren espedientean aintzat hartutako alternatibek bat egiten dute ingurumen-arloko funtsezko helburu estrategikoen lorpenarekin eta hobekuntzarekin. Honako hauek dira helburu horiek:

1) Uraren kalitate ona (1. xedea, 2. helburu estrategikoa)

2) Lurraldearen erabilera orekatua lortzea. Lurraldean esku hartzen duten sektoreen plangintza bateratua eta koherentea lortzea, lurraldearen artifizializazio-arazoak eta zatikatze-arazoak ebatzita geratzeko moduan (Uraren Esparru Arteztarauaren 4. xedea, 9. helburu estrategikoa).

   2.a.) Hirigintza-ekintzek eta beste azpiegitura batzuen eraikuntzak artifizializatzen duten hektarea kopurua urtez urte murriztea.

   2.b.) Jada artifizializatutako lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, lurzoru urbanizaezina birsailkatu aurretik, batez ere nekazaritza-lurzorua eta lurzoru naturala babestuz.

3) Dibertsitate ekologikoaren galera etetea, lehorreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuz eta leheneratuz (Uraren Esparru Arteztarauaren 3. xedea, 7. helburu estrategikoa), eta irizpide horri dagokionez:

   3.a.) Natura 2000 Sarea: ezartzea, babestea eta kudeaketa-planak. Arauzko esparrua sortzea (3. xedea, 2. ekintza-ildoa).

   3.b.) Espazio natural babestuez kanpo dauden eremuen babesaren askitasuna, koherentzia eta konektagarritasuna. Horretarako korridore ekologikoen sarearen garapenarekin aurrera egingo da, paisaia babesten jarraituko da –Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen katalogoa abian jarriko da–, kalitate paisajistikoko helburuak eta irizpideak definituko dira, ibaien eta hezeguneen kontserbazio egokirantz egingo da aurrera –inguru horiek kudeatzeko, leheneratzeko eta jarraipena egiteko oinarriak ezarriko dira–, eta toki-mailako babesa sustatuko da –Arau Subsidiarioetan parke periferikoak sortzea eta babes bereziko zonak izendatzea sustatuko da–. (3.07 xedea, 4. ildoa).

   3.c.) Berdeguneen eta hiri-inguruko ibai-tarteen ingurumen-kalitatea hobetzea, hiri-inguruneetan biodibertsitatea hobeto kontserbatzeko (Uraren Esparru Arteztarauaren 3.07 xedea, 9. ildoa).

4) Aldaketa klimatikorako egokitzapena (Uraren Esparru Arteztarauaren 11. helburu estrategikoa), eta, irizpide horri dagokionez, M5.3. konpromisoa, hots, gaur egun garatuta ez dauden eta 100 urteko birgertatze-aldiko uholdeen arriskua duten zonetan artifizializazioa saihestea, ahal den heinean.

## 1.3.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK

Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa idazteko lanak egitean, hainbat aukera aztertu zen:

- "Oso-osorik berraztertzeko" aukera:

    - Lehenik, indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Plana berraztertzearen ikuspegitik lan egiteko aukera hartu zen aintzat. Berraztertze horretan, araudia erregulatzeko alderdi jakin batzuk berriro aintzat hartzeko aukerarekin batera, beste alderdi orokor batzuk ere hartu dira kontuan, hala nola Planaren osotasunaren dokumentuak eta planoak eguneratzea ingurumenaren, hidraulikaren eta hirigintzaren ikuspegi hirukoitzetik.

      Lurraldearen Arloko Plana onartu zenetik 8 urte besterik igaro ez denez gero, goizegi deritza lan hau ekiteari eta oraingoz lan sinpleago batekin hastea erabaki da. Aldaketa partziala egitearen aldeko hauta egin da, funtsezkoak ez diren alderdi batzuk aldatuko dituena, hala nola uholde-arriskuari buruzko mapak eguneratzea eta lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak txertatzea.

- "0" aukera edo "ez esku hartzeko" aukera:

    - Bigarren, Lurraldearen Arloko Planak urpean gera daitezkeen zonetarako ezartzen duen erregulazioari eusteko aukera hipotetikoa ere hartu da aintzat. Dena den, zona horietarako beste erregulazioa bat egiteko aukeraren alde egin da. Horrela, ur-ibilguetako ertzetan urpean gera daitezkeen zonen lurralde-erreserba optimizatuko da, betiere ingurumenaren eta naturaren babes zabalagoaren ikuspegitik. Izatez, ordezko aukera hori da Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa-dokumentu honen eduki nagusia.

- "Urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilerak berraztertzeko" aukera:

    - Bestalde, eta Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren berariazko ikuspegitik, beste planteamendu batzuk hartu dira aintzat urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilera erregulatzeko. "Urpean gera daitekeen lurraldearen zerrenda" (2005eko martxoa) eta "Ur-hustuketa handiko bidea" (2006ko apirila) kontzeptuak tresna tekniko egokitzat jo dira lurzoruaren hirigintza-erregulazioa modu haztatuan modulatzeko, betiere nahiko artifizializatuta edo oso artifizializatuta dauden ibai-esparruetan urpean gera daitezkeen zonetan. Dena den, oztopo hidraulikoak ezabatuko direneko agertoki integratuak aintzat hartuko dituzten eta/edo ubideratzeko hainbat tipologia aintzat hartuko dituzten azterlan hidraulikoekin lotuko da.

Azkenean, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren dokumentuari "urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilerak berraztertzeko" aukera txertatzearen alde egin da.

## 1.4.- PLANAREN PROPOSAMENAK

Indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planak ez ditu jardun-proposamen zehatzak edo berariazkoak. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien eta erreken ertzetan lurraldea antolatzeko erregulazioa sistematizatzeko helburua duen araudi integratua da.

Ildo horretan, uholde-arriskuaren mailaren arabera lurzorua erabiltzeko erregulazioarekin lotzen diren Lurraldearen Arloko Planaren hainbat arauzko alderdi egokitzeko eta eguneratzeko berariazko erregulazioak planteatu dira Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan, batez ere uholdeen prebentzioari dagokionez eta erregulazio hidraulikoari dagokionez.

Hauek dira ingurumen-arloan planteatutako arauzko erregulazio nagusiak:

- "Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak" lurralde-ereduan txertatzea, Lurraldearen Arloko Planean definitutako ibaien eta erreken ertzak antolatzeko.
- Uren Zuzendaritzak berriki landu edo homologatu dituen azterlanen ondorioz, eta Uren Zuzendaritzak landutako "azterlan hidraulikoen diseinu teknikoko irizpideak" dokumentuaren ondorioz, sortutako uholde-arriskuari buruzko mapak gauzatzea.
- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak Natura 2000 sarean ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa identifikatutako espazioak identifikatzea eta lurralde-mailan erregulatzea.
- Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Europar Batasunaren urriaren 23ko 2000/60/EE Uraren Esparru Arteztaraura eta Eusko Jaurlaritzaren 1/2006 Legera (Uraren Legera) egokitzeko erreferentziak barnean hartzea.

## 1.5.- BESTE PLAN BATZUETAKO ARTEZTARAUEKIN ETA IRIZPIDEEKIN LOTZEN DIREN ZEHAZTAPENAK

Indarrean dagoen Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arauzko gorputzaren helburua da goragoko lerruna duten hainbat Planen eta Arteztarauen ondoriozko arteztarauak eta irizpideak aintzat hartzea, integratzea eta garatzea. Hauek dira adierazgarrienak Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketari dagokionez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Eusko Jaurlaritzarena.

  Lurraldearen Antolamendurako Artezpideei dagokienez honako dio, hitzez hitz, Lurraldearen Arloko Planaren Araudiaren A.1. puntuak:

  "EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak, Lurrazaleko Uren inguruko 5.2.D —5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak— eta 6.8.7. —6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategoriak— epigrafeei dagozkienak, garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu."

- 2000/60/EE Arteztaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2000ko urriaren 23koa, uren politikaren esparruan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen duena (Uraren Esparru Arteztaraua deritza).

  Arteztarau horri dagokionez, Lurraldearen Arloko Planaren arauzko gorputzean Uraren Esparru Arteztaraua onartzearen ondoriozko irizpideen erreferentzia barnean hartzea da Aldaketa honen helburuetako bat.

- Ebro ibaiaren Plan Hidrologikoa.

  Plan horri dagokionez, Lurraldearen Arloko Planaren Araudiko E kapituluan espresuki erregulatzen da Lurraldearen Arloko Planaren arauzko edukien eta Ebro ibaiaren Plan Hidrologikoan ezarritako irizpideen arteko egokitzapena.

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena, eta 183/0003 Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duena. Legeria horren ondoriozko xedapenak betetzearen lekukoa da honako dokumentu hau bideratzea, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana bideratzea.

- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

- Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko ingurumen-plangintza:

  C Parke Natural edo Biotopo Babestu izendatutako eremuak, betiere baliabide naturalak antolatzeko planen bitartez antolatuak, edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legea garatzeko

gainerako araudiaren bidez antolatuak.

C Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren parte diren eremuak, Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauaren arabera, eta haren barruan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Lekuekin lotzen diren espazioak, Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE erabakiaren arabera eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE erabakiaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) arauzko erregulazioan ere hartu ziren aintzat ingurumen-plangintza horiek guztiak.

## 1.6.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUNEN IDENTIFIKAZIOA

Ingurunean zuzenean esku hartzeko edo jarduteko proposamen zehatzak planteatzen ez dituen dokumentu arautzailea eta erregulatzailea den aldetik, Planak ez du inpakturik eragingo.

Ibaietan edo horien ertzetan esku hartzeko berariazko ekintzak planteatzen dituzten planetan, programetan edo proiektuetan identifikatu eta ebaluatu beharko dira inpaktuak eta ezarri beharko dira, hala badagokie, neurri zuzentzaile egokiak.

## 1.7.- PLANA GAUZATZEKO FASEAK

Indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan, ezta horren Aldaketaren dokumentuan, ez da aurreikusten Plana hainbat fasetan gauzatzea edo garatzea. Izan ere, ibai-ibilguen inguruko lurraldea antolatzeko izaera arautzailea edo erregulatzailea duten iraunaldi zehatzik gabeko dokumentuak dira; dokumentu iraunkorrak dira.

## 1.8.- HAUTEMAN DIREN INFORMAZIO HUTSUNEAK

Lurraldearen Arloko Plana indarrean izan den 8 urteetan, eta Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren dokumentuak idazteko prozesuan, ez da funtsezko informazio-hutsune adierazgarririk hauteman.

## 1.9.- HERRITARREN PARTE HARTZEA

Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren dokumentua formulatu eta bideratu zenean, Plana estamentu administratibo guztien artean –eta, oro har, herritarren artean– hedatzeko programa zabala bete zen. Gainera, Plana onartu ostean, Eusko Jaurlaritzak jendaurrean eman zuen argitara.

Era berean, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa hau formulatzean eta bideratzean, herritarrek parte hartzeko prozesua beteko da. Testuinguru horretan, hain zuzen ere, sartzen da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlan osagarri hau. Horrela, ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena jaulkitzeko aginduzko izapidea beteko da, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren dokumentua jendaurrean jartzeko prozesu arautuaren aurretiazko urrats gisa.

## 2.- BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN AZTERKETA

### 2.1.- PLANAREN EDUKIEKIN ETA, ONDORIOZ, ALTERNATIBEN SORRERAREKIN ELKARRERAGINA IZAN DUTEN ETA JADA EBALUATU DIREN HIERARKIKOKI GORAGOKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANEN EDO PROGRAMEN ARTEZTARAUAK ETA IRIZPIDEAK IDENTIFIKATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa lantzean, goragoko lerruna duten honako lurralde-antolamenduko planen edo programen ondoriozko artezpideak eta irizpideak ebaluatu eta txertatu dira –plan edo programa horietako asko aintzat hartu ziren jada indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Plana idazteko garaian–:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.

  Zehazki, Lurraldearen Arloko Planaren Araudiaren A.1. puntuan honakoa adierazten da hitzez hitz:

  "EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak, Lurrazaleko Uren inguruko 5.2.D —5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak— eta 6.8.7. —6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategoriak— epigrafeei dagozkienak, garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu."

- Ebro ibaiaren Plan Hidrologikoa.

  Plan horri dagokionez, Lurraldearen Arloko Planaren Araudiko E kapituluan espresuki erregulatzen da Lurraldearen Arloko Planaren arauzko edukien eta Ebro ibaiaren Plan Hidrologikoan ezarritako irizpideen arteko egokitzapena.

- Lurraldearen Zatiko Planei dagokienez, Ibaiak eta Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan, Araudiaren testu aldatuaren E.1.3. puntuan, honakoa dioen arauzko zehaztapena gaineratu da:

  "Salbuespen gisa, Lurraldearen Zatiko Planean definitzen diren lurralde-izaerako hirigintza-garapeneko jardunetan –batez ere ekonomia-jardueretarako lurzoruetan eta 10 eta 100 urte arteko birgertatze-aldietan urpean gera daitezkeen lurzoruetan garatuko direnetan–, Lurraldearen Zatiko Plan horren zehaztapenak nagusituko zaizkie E-1 epigrafe honetan aurretik adierazitako irizpideei, uholde-arriskua saihesteko neurri egokiak finkatzearren".

Kasu guztietan egiaztatu da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren eta plan edo programa horien guztien arteko bateragarritasuna. Gainera, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ondorioz ingurumenean sor daitekeen eragina positiboa dela ere egiaztatu da.

Halaber, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren esparruan eragina duten naturaren eta ingurumenaren babesari buruzko berariazko plan edo programa guztiak hartu dira aintzat (2.3. epigrafean zehatz-mehatz zerrendatzen direnak).

## 2.2.- INGURUMEN ARLOKO, NATURA BALIABIDEEN KONTSERBAZIOAREN ARLOKO EDO GARAPEN IRAUNKORRAREN SUSTAPENAREN ARLOKO HELBURUAK ETA KONPROMISOAK (INGURUMENEKO ESPARRUKO PROGRAMA, ETAB.), ADMINISTRAZIO XEDAPENAK ETA LEGERIA, NAZIOARTEKOAK, EUROPAR BATASUNEKOAK, ESTATUKOAK EDO AUTONOMIA ERKIDEGOKOAK. PLANA EDO PROGRAMA LANTZEAN ESTRATEGIA ETA HELBURU HORIEK AINTZAT HARTU IZATEKO MODUAREN AZTERKETA

Indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Plana onartu ostean, Europar Batasunak Uraren Esparru Arteztaraua onartu du –2000/60/EE Arteztaraua, urriaren 23koa, uren politikaren esparruan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen duena–. Era berean, Eusko Legebiltzarrak Uraren Legea onartu du (1/2006 Legea, ekainaren 23koa). Aldaketaren xedea da Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak Uraren Esparru Arteztarauaren –2000/60/EE Arteztarauaren– xedapenekin eta Eusko Legebiltzarreko 1/2006 Uraren Legearen xedapenekin homologatzea.

Era berean, gaur egungo Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren indarraldian, Natura 2000 Sarea ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan. Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE erabakiak eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE erabakiak Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda onartu dute, Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauarekin bat eginik. Euskal Autonomia Erkidegoan 15 espazio izendatu dira Natura 2000 Sareko ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa: Arakil, Araxes, Artibai, Ayuda, Baia, Barrundia, Ebro, Ega-Berron, Lea, Leitzaran, Oria Garaia, Omecillo-Tumecillo, Urumea, Zadorra ibaiena eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren ibai-sarea.

Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan zehazki islatu beharko dira ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatu diren 15 espazioak, eta berezko erregulazioa esleitu beharko zaie.

Era berean, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren edukiak lurralde-iraunkortasunaren alorreko gaur egungo erreferente komunitarioetan inkardinatuko dira -"Ingurumenaren eta garapen iraunkorraren arloko politika eta jarduneko programa komunitarioa (COM 23-1992)", "Hiri eta herri iraunkorrei buruzko Europako III. Konferentzia (1996)", "Europar Batasuneko hiri-garapen iraunkorrerako jardun-esparrua (EE 1999)", "Europar Batasunerako garapen iraunkorreko estrategia (2001)"-. Tokiko plangintza idazteko lanen hasiera-hasieratik, tokiko plangintza gidatu behar duten ingurumen-irizpideak hartzen direla aintzat bermatuko da.

Azkenik, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa "Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programara (2007-)" egokitu da. Programa horren konpromiso estrategikoen artean dago ahal den heinean saihestea 100 urteko birgertatze-aldietako ur-goraldietan arriskuan dauden eta gaur egun garatu gabe dauden zonak artifizializatzea.

Halaber, Programa horren jardun-ildoen artean nabarmendu behar da ibaiak edo ibai-tarteak babesteko jardunak sustatzea (ibai eszenikoa edo ibai-erreserba) eta ur-masen naturaltasuna berreskuratzeko leheneratze-jardunak sustatzea, presio morfologikoa urrunduz (oztopoak eta estaldurak kentzea, uholdeetarako babesak aldatzea, ur-bazterreko basoak birsortzea, lurrak

eskuratzea, eta abar). Halaber, ibaia aske uzteko espazioak sustatuko dira uholdeen eragina arintzeko, baita Lurraldearen Arloko Planetan eta azterlanetan identifikatzen diren zonetan uholde makala eta horizontala errazteko ere. Izatez, funtsezkoa izango da egoera ekologiko onaren konpromisoa lortzeko.

## 2.3.- AZTERGAI DUGUN ESPARRUAN ERAGINA DUTEN INGURUMENA BABESTEKO PLANEN ETA PROGRAMEN IDENTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa lantzean, natura eta ingurumena babesteko honako planen edo programen ondoriozko artezpideak eta irizpideak ebaluatu eta txertatu dira –plan edo programa horietako asko aintzat hartu ziren jada indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Plana idazteko garaian–. Kasu guztietan egiaztatu da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren eta plan edo programa horien guztien babes-zehaztapenen arteko bateragarritasuna. Gainera, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ondorioz ingurumenean sor daitekeen eragina positiboa dela ere egiaztatu da. Hauek dira aintzat hartu diren planak edo programak:

- Natura 2000 Sarea

  Desagertzeko arriskuan diren espezieak edo habitatak dituzten lekuen Europako sare ekologikoa da Natura 2000 sarea. Espezie edo habitat horiek kontserbazio-egoera egokian mantentzea izango da sarearen helburua (habitatei buruzko 92/43/EEE Arteztaraua, habitat naturalak eta basafauna eta basaflora kontserbatzeari buruzkoa). Garrantzi Komunitarioko Lekuek eta Hegaztiak Babesteko Zona Bereziek osatzen dute Sarea. Ibai-ibilguei dagokienez:

  · Natura 2000 Sareko lekuen barruan hainbat tamainatako ibai-ibilguak sar daitezke (zonako Garrantzi Komunitarioko lekuak eta ibai-ibilguak dituzten Hegaztiak Babesteko Zona Bereziak).
  · Ibai-ibilguak berak izan daitezke Natura 2000 Sareko leku (ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Lekuak, hala nola Urdaibaiko ibai-sarea, Ebro ibaia, etab.).

  Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauaren arabera eskualde biogeografiko atlantikoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda onartzen duen 2004ko abenduaren 7ko Batzordearen Erabakiak eta Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauaren arabera eskualde biogeografiko mediterraneoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda onartzen duen 2006ko uztailaren 19ko Batzordearen Erabakiak definitzen dituzte Natura 2000 Sarearen parte diren lekuak.

  Natura 2000 sareko lekuetan beste plan edo proiektu batzuk baimentzean, Habitaten Arteztarauaren 6. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatiak izan beharko dira kontuan, baita horiek aplikatzeko Europako Batzordearen erreferentziak ere:

  · Natura 2000 espazioen kudeaketa. Habitatei buruzko 92/43/EEE Arteztarauaren 6. artikuluko xedapenak (www.ingurumena.net - Ingurumena - Biodibertsitatea – Naturguneak).
  · Habitatei buruzko 92/43/EEE Arteztarauaren 6. artikuluaren 3. eta 4. idatz-

zatietako xedapenei buruzko gida metodologikoa (www.ingurumena.net).

- Habitatei buruzko 92/43/EEE Arteztarauaren 6. artikuluaren 4. idatz-zatiari buruzko dokumentu orientagarria.

Batzordeak espazio bakoitzerako landutako datuen formulario normalizatuetan kontsulta daitezke kontserbazioaren helburuak (www.ingurumena.net).

- Espazio Natural Babestuak

Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen indarrez izendatutako Parke Naturalek eta Biotopo Babestuek eratzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarea:

- 9 Parke Naturalek (Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar, Armiñon, Gorbea, Izki, Pagoeta, Urkiola eta Valderejo).
- 5 Biotipo Babestu (Inurritza, Itxina, Laguardiako aintzirak, San Juan Gaztelugatxe eta Leitzaran ibaia).

Espazio Natural Babestuek berariazko antolamendu eta kudeaketako tresnak dituzte (Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak).

- Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Uztailaren 27ko 16/2004 Dekretu bidez behin betiko onartua. Inguru Hezeak babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren II. multzoan, hau da, plan horren antolamendu-esparrua eratzen duten hezeguneetan, Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin gainjarri daitezkeen zenbait espazio sartzen dira, hala nola Barbadun, Butroe, Lea, Artibai, Deba, Urola, Inurritza eta Oria ibaiaren itsasadarrak eta barrualdeko hezeguneak: Astrabuduko ibarreko hezegunea, Bolue haraneko putzuak, eta abar.

Lurraldearen Arloko Planak berariazko zonifikazioa ezartzen du horietako bakoitzerako. Gainera, kostaldeko hezeguneetarako (lehenengo zortzietarako) berariazko matrize batean oinarritutako erabileren eta jardueren erregulazioa ezartzen du (14. art.), nahiz eta zenbait erabilera jarduerak eta erabilerak erregulatzeko matrize orokorrarekin lotzen den, eta hori barrualdeko hezeguneetan aplikatzekoa da (12. art.).

- Arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planak

Ibai-ibilguekin lotuta dauden zenbait fauna-espeziek dituzte berariazko kudeaketa-planak. Ondoren zerrendatzen dira espezie horiek, eta espezie horietako bakoitzaren kasuan honako alderdiak zehaztu beharko dira: batetik, interes komunitarioko espeziea den (92/43/EEE Arteztarauaren “Interes komunitarioko animali eta landare espezieak, kontserbaziorako zona bereziak izendatu beharra

dutenak" II. Eranskina eta "Interes komunitarioko animali eta landare espezieak, babes zorrotza beharra dutenak" IV. Eranskina), eta, bestetik, Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan sartzen diren (167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena –1996ko uztailaren 22ko 140 zk. EHAA– eta zerrenda horren zabaltzeak. Hauek dira ibai-ibilguekin lotzen diren espezie horiek:· *Cobitis calderoni* (Lamprehuela, Mazkar arantzaduna). Gipuzkoan apirilaren 18ko 349/2007 Foru Agindu bidez arautua.

- *Galemys pyrenaicus* (Muturluze piriniarra). 92/43/EE Arteztarauaren II. eta IV. Eranskinak. Gipuzkoan 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindu bidez arautua.
- *Hyla meridionalis* (Hegoaldeko zuhaitz-igela). 92/43/EE Arteztarauaren IV. Eranskina. Gipuzkoan 1999ko azaroaren 10eko Foru Agindu bidez arautua.
- *Lutra lutra* (Igaraba arrunta). 92/43/EE Arteztarauaren II. eta IV. Eranskinak. Araban urriaren 27ko 880/2004 Foru Agindu bidez arautua.
- *Mustela lutreola* (Bisoi europarra). 92/43/EE Arteztarauaren II. eta IV. Eranskinak. Araban apirilaren 1eko 180/2003 Foru Agindu bidez arautua, Bizkaian 118/2006 Foru Dekretu bidez arautua, eta Gipuzkoan 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindu bidez arautua.
- *Riparia riparia* (Uhalde-enara). Araban 22/2000 Foru Dekretu bidez arautua.
- *Salaria fluviatilis*, (Ibai kabuxa). Araban 2002ko ekainaren 12ko 351 Foru Agindu bidez arautua.
- *Squalius pyrenaicus* (Iparraldeko katxoa). 339/07 Foru Agindu bidez arautua.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala

  Eusko Jaurlaritzako Herrilan Sailak idatzitakoa, giza arriskuak zein arrisku ekonomikoak prebenitzeko eta murrizteko helburu nagusiarekin.

Era berean, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren –eta horren Aldaketaren– lurralde eta ingurumenaren arloko erregulazio-edukiak osatu egingo dira. Onartu diren edo bideratzen ari diren izaera naturalistikoko honako Planetako xedapenekin osatuko dira erregulazio-eduki horiek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin
  2005eko urtarrilaren 10eko Agindua, hasierako onespenekoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2000-2006ko Landa Garapen Iraunkorreko Planarekin
- Euskadiko Baso Plangintzarekin 1994-2030
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2012ko Lurzoru Kutsatuei buruzko Planarekin

# 3.- PLANAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

## 3.1.- AZTERGAI DUGUN ESPARRUAREN DEFINIZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketak (isurialde mediterraneoa) aztergai duen esparrua bat dator indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planak aztergai duen esparruarekin. Horrenbestez, honakoek osatzen dute aztergai dugun esparrua: arro hidrografiko mediterraneoaren ur-ibilgu guztien bi aldeetan -sortzen direnetik urak Ebro ibaira isurtzen dituztenera arte- 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek, Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatzen duen Ebro ibaiaren tartearen ezkerraldekoa barne; eta urtegien inguruan 200 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek.

Jardun-esparru horretan sartzen dira Puron, Omecillo, Ega, Araia eta Ebro ibaien arroetako Arabako Lurralde Historikoko zatiak, Baia ibaiaren arroan dauden Bizkaiko hainbat udalerritako lurrak eta Zadorra ibaiaren arroan sartzen diren Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udalerritako lurrak.

Aztergai den esparruaren definizioa Lurraldearen Arloko Planaren izaeraren eta helburuaren izaeran eta helburuan oinarritzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde mediterraneoko ibaien eta erreken ertzen lurralde-antolamenduaren erregulazioa baita Planaren funtsa eta helburua.

## 3.2.- INGURUNEAREN DESKRIBAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) dokumentu honen helburua da isurialde mediterraneoko sare hidrografikoarekin muga egiten duten espazioen lurralde-antolamendua arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde mediterraneoan, ibaiak eta haranak funtsezko faktoreak dira habitat espazialaren definizioan eta hierarkizazioan. Horrez gain, funtsezko elementuak dira komunikazio-sistemen konfigurazioan eta azpiegitura-sareen antolamenduan.

Horregatik guztiagatik, ibai-ibilguen tratamenduaren analisia eta ur-bazterren hirigintza-okupazioaren egoeraren analisia aurretiazko urrats saihestezina da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan planteatzen den ertzen antolamenduari begira. Izatez, ibaien eta horien espazio-jabariko esparruen tratamendu orekatua funtsezkoa eta ezinbestekoa da gure geografia egoki gobernatzeko, betiere lurraldearen ingurumen-balioak babesteko ikuspegitik zein erregulazio hidraulikoaren eta espazio biztanduen hirigintza-antolamenduaren ondoriozko arazoen haztapen justuaren ikuspegitik.

Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde mediterraneoko sare hidrografikoari dagokion ingurune geografikoaren deskribapen xehatua aztertzeko hona jo beharko da: Eusko Jaurlaritzak argitara eman eta indarrean dagoen Ertzen Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuaren Memoriaren 3. kapitulura, eta ingurumenaren, hidraulikaren eta hirigintzaren arloko osagaien gaikako mapen bildumetara.

## 3.3.- INGURUMEN BALIABIDE BALIAGARRIAK

Ondoren, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan ezarritako erregulazioan babes bereziaren mende dauden ingurumen-baliabide baliagarritzat jotzen diren lurralde-esparruak zerrendatuko dira:

- **Lehentasuneko Interes Naturalistikoko Zonetako Ertzak.**

  Lehentasuneko Interes Naturalistikoko Zonetako Ertzak dira:

  - Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak
    - URKIOLAKO PARKE NATURALA
    - GORBEIAKO PARKE NATURALA
    - VALDEREJOKO PARKE NATURALA
    - IZKIKO PARKE NATURALA
    - LAGUARDIAKO AINTZIRETAKO BIOTOPO BABESTUA
  - "Natura 2000" Europako Sare ekologikoa
    - VALDEREJO ES2110001
    - GORBEIA ES2110002
    - URKIOLA ES2130003
    - IZKI ES2110004
    - LAGUARDIAKO AINTZIRAK ES2110011
    - ARREO-CAICEDO YUSO LAKUA ES2110020
    - URIBARRIKO URTEGIA ES2110021
    - AIZKORRI ES2120022
    - ENTZIA ES2110023
  - Lurraldearen Antolamendurako Arteztarauetako Hirigintza Intereseko Eremuak
    - 2. IZKIZ
    - 3. AIZKORRI
    - 4. ENTZIA
    - 37. ALBINAGOIKO PAGADIA
    - 38. ZURIAKO HARANAREN HONDOKO HARIZTIAK
    - 39. GODAMO MENDIKO HARIZTIA
    - 40. LUZURIAGAKO HARIZTIA
    - 41. ARZUBIAGAKO HARIZTIA
    - 42. MEZKIAKO HARIZTIA

- 43. AÑUAKO HARIZTIA
- 44. ARREO-CAICEDO YUSO LAKUA
- 45. OLANDINA AINTZIRA (APELLANIZ)
- 46. SOLANA MUINOKO ERKAMEZTIA
- 47. KRIPANGO ARTADIAK
- 48. NAVARIDASKO ARTADIAK
- 49. DUEÑASKO PINUDIA (LABRAZA)
- 50. LASERNAKO ABARIZTIA

- **Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak**

Ibilguen ur-bazterretan dagoen landarediaren kontserbazio-egoeraren arabera definitzen da klase hori, eta babestu beharreko landaredia duten ertzen tarteak hautatzen dira:

- Ondo kontserbatutako haltzadia: galeria-basoa da Euskal Herriko ur-ibilguen inguruko baso naturala. Haltza (Alnus glutinosa) da zuhaitz-espazio nagusia, eta batzuetan bakarra. Alabaina, batzuetan beste espezie batzuekin batera ageri da, hala nola lizarrarekin (Fraxinus excelsior), eta, hein txikiago batean, haritz kandudunarekin (Quercus robur), etab. Maiz zuhaixka ugari ageri da, eta horien artean sahatsak (Salix sp.) eta hurritzak (Corylus avellana) nabarmentzen dira. Hasiera batean, ur-ibilguen ondo-ondoko lurrak okupatzeaz gain, urpean gera daitezkeen ibar lauen zati handi bat ere okupatzen dute. Gaur egun, kasurik onenean, zuhaitz ilara bat edo ilara gutxi batzuk baino ez dira kontserbatzen.

- Espezie exotikoak nagusi diren ur-bazterreko basoak: ibai-tarte batzuetan maiz samar ikus daitezke espezie naturalizatuak edo landatuak dituzten ur-bazterreko baso garatuak –astigar zuriak, sasiakaziak, makalak, eta abar–.

- Aintzira-sistemetako hezeguneetako berezko landaredia.

- **Higadura, irristatze eta/edo akuiferoen urrakortasunaren arloko arriskua duten zonak**

Zona horren barruan sartzen dira:

- Higadura-arriskua eta/edo irristatze-arriskua duten zonetako ertzak (Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako baldintzatzaile gainjarria). Ibilgutik hurbil dauden eta higadura arazoak izateko eta irristatze handi samarrak jasateko arriskua duten lurzoru urrakorreko eta/edo mazela ezegonkorreko eremuak dira. Higadura aktiboko zonetan sartzen dira lurrazaleko irristatzeen zonak eta mazelen ezegonkortasunekoak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak helarazitako inbentarioaren arabera.

- Akuiferoen urrakortasun handiko edo oso handiko zonak (Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako baldintzatzaile gainjarria), betiere Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen poluzioarekiko urrakortasuneko maparen arabera (Ingurumen Sailburuordetza).

- **Leheneratu beharreko ertzak**

  Zabortegiak, hondakindegiak, lur-erauzketak, betelanak, ubideratze-lanak eta abar agertzeagatik narriatuta dauden ertzak eta ur-bazterrak. Beste edozein arrazoi batengatik kalitate ekologikoa murriztuta duten eta kalitate hori aktiboki berreskuratu behar duten ibai-tarteak ere sartzen dira kategoria honetan.

Indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planaren mapetan islatzen dira grafikoki zonifikazio horiek. Ingurumen-osagaiaren alderdiak. A.2.1 eta A.2.31-1 arteko mapak, 1/35.000 eskalakoak.

Horrez gain, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko Azterlan honetan egiaztatu ahal izan denez, eragin positiboa du Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren eraginpean dauden ibai-ibilguak antolatzeko neurriak ingurumen-garrantzi berezia duten honako elementuetan aplikatzeak:

- Flora eta landaredirako interesa duten eremuak

  a) Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan sartzen diren flora eta faunako espezieen populazioen edo banakakoen banaketa-eremua.

  b) Interes komunitarioko espezieak (92/43/EE Arteztaraua - Natura 2000 Sarea): taxoietan, horiekin zuzenean lotzen diren espezieak ez ezik, umatzeko, elikatzeko eta ugaltzeko habitatak ere hartuko dira aintzat.

  c) Ur-bazterreko baso helduak eta ondo osatuak, eta flora bereziko espezieen eta/edo arriskuan dagoen florako espezieen habitat diren erreka txikiak.

- Korridore ekologikoak

  Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea honako helbide honetan kontsulta daiteke: www.ingurumena.net - Ingurumena – Biodibertsitatea. Espezien joan-etorrietarako iragazkortasun handiagoko lerro edo iraganbide baten inguruan antolatutako egiturazko elementuek osatzen dute:

  - Espazioak-gunea. Babes-irudiren bat duten ekosistema bereziki garrantzitsuak dira.
  - Loturako korridoreak eta loturako eremuak: habitat naturalak eta erdi-naturalak dira. Lotura-funtzioan garrantzi handiena duten elementuak dira.
  - Moteltze-eremuak: nekazaritza eta baso-lanetako erabilerak nagusi dira.
  - Leheneratze ekologikoko eremuak: zona degradatuak.
  - Lotura-interes berezia duten ibai-tarteak: lotura-funtzioa duten ibilguak eta ur-bazterrak.

  Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko tamaina handieneko ibai-ibilguak jo dira lotura-

interes bereziko ibai-tarte gisa; nolanahi ere, tamaina txikia baina kokaleku estrategikoa duten ibaiak ere sartu dira kategoria horretan. Etengabeko lurralde-fluxua ahalbidetzen dute, eta Natura 2000 Sarearen koherentzia bermatzeko funtsezko oinarria dira.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko konektagarritasun ekologikoari eta paisajistikoari buruzko azterlana ere hartu da aintzat.

- Pasaia

Lurraldearen Arloko Planak antolatutako ibai-ibilguetako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren aurreproiektuan barne hartzen dira (www.ingurumena.net - Ingurumena - Biodibertsitatea) eta/edo Arabako Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan.

- Kultura-ondasunak

Planaren esparruan askotariko ondare-elementu eta hobi arkeologiko kopuru handia dago, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen babesean egindako izendapenak dituzte.

- Nekazaritza-lurzorua

Oro har, ibaietan jalkinen bilkinak arras erraztu du nekazaritza-balio handiko lurzoruak agertzea, eta lurzoru horiek babestu beharreko ondasunak dira. Bestalde, nekazaritza-ustiapena hainbeste zabaldu da ibai-ibilguetarantz ur-bazterrak degradatu dituen.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekia

- Ingurumen-arloan sentikorrak diren zonak

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 51. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian definitu dira.

## 3.4.- LURRALDEAREN INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOEN IDENTIFIKAZIOA, ERTZEN ANTOLAMENDUAREN IKUSPEGITIK

Ibaien eta Erreken Ertzen Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ikuspegitik, honako esparruak identifikatzen dira ingurumen-unitate homogeneo gisa –berariazko erregulazioaren mende daudenak–, betiere ibaien ur-bazterren barruan Uren Zuzendaritzak ezarritako sailkapenaren arabera bereizita:

- **10 urteko birgertatze-aldiko ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak.**
- **10 eta 100 urte arteko birgertatze-aldiko ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak.**

- **100 eta 500 urte arteko birgertatze-aldiko ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak.**
- **500 urteko birgertatze-aldiko uholde-orbanaz kanpo geratzen diren eremuak.**

Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketari dokumentazio osagarri gisa gaineratu zaizkio Uren Zuzendaritzak landutako edo homologatutako azterlan hidraulikoak. Azterlan hidrauliko horietako uholde-arriskuari buruzko kartografian definitzen dira esparru espazial horiek edo ingurumen-unitate homogeneo horiek.

# 4.- PLANEAN AINTZAT HARTUTAKO ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN INGURUMEN EBALUAZIOA

## 4.1.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAK

Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa idazteko lanak egitean, bi antolamendu planteatu dira:

- "Oso-osorik berraztertzeko" aukera:

  - Lehenik, indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Plana berraztertzearen ikuspegitik lan egiteko aukera hartu zen aintzat. Berraztertze horretan, araudia erregulatzeko alderdi jakin batzuk berriro aintzat hartzeko aukerarekin batera, beste alderdi orokor batzuk ere hartu dira kontuan, hala nola Planaren osotasunaren dokumentuak eta planoak eguneratzea ingurumenaren, hidraulikaren eta hirigintzaren ikuspegi hirukoitzetik.

    Lurraldearen Arloko Plana onartu zenetik 8 urte besterik igaro ez denez gero, goizegi deritza lan hau ekiteari eta oraingoz lan sinpleago batekin hastea erabaki da. Aldaketa partziala egitearen aldeko hauta egin da, funtsezkoak ez diren alderdi batzuk aldatuko dituena, hala nola uholde-arriskuari buruzko mapak eguneratzea eta lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak txertatzea.

- "0" aukera edo "ez esku hartzeko" aukera:

  - Bigarren, Lurraldearen Arloko Planak urpean gera daitezkeen zonetarako ezartzen duen erregulazioari eusteko aukera hipotetikoa ere hartu da aintzat. Dena den, zona horietarako beste erregulazioa bat egiteko aukeraren alde egin da. Horrela, ur-ibilguetako ertzetan urpean gera daitezkeen zonen lurralde-erreserba optimizatuko da, betiere ingurumenaren eta naturaren babes zabalagoaren ikuspegitik. Izatez, ordezko aukera hori da Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa-dokumentu honen eduki nagusia.

- "Urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilerak berraztertzeko" aukera:

  - Bestalde, eta Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren berariazko ikuspegitik, beste planteamendu batzuk hartu dira aintzat urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilera erregulatzeko. "Urpean gera daitekeen lurraldearen zerrenda" (2005eko martxoa) eta "Ur-hustuketa handiko bidea" (2006ko apirila) kontzeptuak tresna tekniko egokitzat jo dira lurzoruaren hirigintza-erregulazioa modu haztatuan modulatzeko, betiere nahiko artifizializatuta edo oso artifizializatuta dauden ibai-esparruetan urpean gera daitezkeen zonetan. Dena den, oztopo hidraulikoak ezabatuko direneko agertoki integratuak aintzat hartuko dituzten eta/edo ubideratzeko hainbat tipologia aintzat hartuko dituzten azterlan hidraulikoekin lotuko da.

## 4.2.- EZ ESKU HARTZEKO AUKERAREN INGURUMEN EBALUAZIOA

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuaren Eranskinaren 4.2. puntuan aditzera ematen den moduan, "0" aukera edo "ez esku hartzeko" aukera aplikatzearen ondorioak ebaluatu beharko dira, betiere Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan aintzat hartzen diren antolamendu-aukeren ingurumen-azterketarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren kasuan, indarrean dagoen Lurraldearen Arloko Planari bere horretan eustea da "0" aukera edo "ez esku hartzeko" aukera –1.2. idatz-zatian aditzera emandako dokumentazioa gaineratu gabe–.

Urpean gera daitezkeen ertzen etorkizuneko lurralde-antolamendurako jarraibideak finkatzeko kasuan, "ez esku hartzeko" aukera ez da estrategia onargarria –ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren alorrean– ertzak babesteko ikuspegi orokorretik. Izatez, ez ditu aintzat hartzen Uraren Esparru Arteztarauaren irizpideak, arriskua prebenitzeko printzipioa eta garapen iraunkorraren oinarrizko parametroen optimizazio integratua.

## 4.3.- ALTERNATIBAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren kasuan, alternatibak baloratzeko ingurumen-irizpideek lurralde-eskala handi baterako kasuistika orokorrari jarraitu beharko diote. Lurralde-iraunkortasuneko ikuspegi integratzaileak hartu beharko dituzte beti aintzat, ingurunean sortzen diren inpaktu orokorren analisiaz gain –eta horrekin guztiz lotuta–. Proposatutako esku-hartzeen ondoriozko gizarte-onuren analisia ere hartuko da aintzat, baita Lurraldearen Arloko Planean lurralde-mailako ingurumen-birkualifikazioko eragiketa osagarritzat jotzen diren neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen eragina ere.

Azterlan honetako hurrengo kapituluetan, beraz, planteatutako esku-hartzeen ingurumen-ebaluazio orokorra egingo da. 5. kapituluan behar besteko maila orokorrarekin aztertuko dira Planaren proposamenek ingurumenean izan ditzaketen eraginak. 6. kapituluan, aldiz, behar besteko maila orokorrarekin aztertuko dira neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamenak.

## 4.4.- UHOLDE ARRISKUAREN MAILAREN ARABERA LURZORUAREN ERABILERA ERREGULATZEKO HAUTATUTAKO ALTERNATIBAREN DESKRIBAPENA ETA BALORIZAZIOA

4.1. idatz-zatian aditzera eman den bezalaxe, aurretiazko alternatiba gisa hartu dira aintzat, batetik, dokumentua "oso-osorik berraztertzeko" aukera eta, bestetik, "urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilerak erregulatzeko" aukera. Era berean, "0" aukera edo "ez esku hartzeko" aukera ere aztertu da.

Azkenik, Uren Zuzendaritzak landutako "*Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideei*" dagokien alternatibaren aldeko hauta egin da. Hortaz, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlan honetan aukera hori aztertuko da.

Urpean gera daitezkeen zonen lurralde-antolamenduan "*Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak*" txertatzearekin, ur-goraldien ondoriozko arriskuarekiko urrakortasuna murriztu nahi da, baita ur-goraldiek eragindako kalteak ere. Gainera, bizi-kalitate hobea eta garapen iraunkorreko helburuak lortzen lagundu nahi da.

Irizpide horiek bere eginez gero, lurralde-antolamenduak oso tresna baliagarria izango du hirigintza-garapenean arriskuaren prebentzioa sartzeko. Hala, hirigintza-garapenak ziurrak eta uholdeen eraginpean ez daudenak izan daitezen bermatuko du. Irizpide horiek, halaber, oso lagungarriak izango dira uholde-lautadak eta urpean gera daitezkeen ertzak helburu naturalekin erabiltzeko, eraginkortasunez funtzionatzeko, eta hirigintza-garapen desegokiez babestuta geratzeko. Hirigintza-garapeneko jardun desegokiek, kasu gehienetan, ur-sistemen egoera ekologikoa narriatzen dute, eta 2000/60/EE Esparru Arteztarauaren aurka egiten dute.

Irizpide horien arabera, lau esparru bereizi dira urpean gera daitezkeen zonetako lurzoruaren erabilera erregulatzeko. Lau esparru horiek bat datoz uholde-arriskuaren baldintzekin, betiere birgertatze-aldien arabera. Esparru horietako bakoitzerako bi hirigintza-garapeneko maila bereizi dira.

Hauek dira aintzat hartutako esparruak: 10 urteko birgertatze-aldietarako ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak; 10 eta 100 urte arteko birgertatze-aldietarako ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak; 100 eta 500 urte arteko birgertatze-aldietarako ur-goraldietan urpean geratuko diren eremuak; eta, azkenik, 500 urteko birgertatze-aldietarako ur-goraldiez libre dauden eremuak. Hauek dira aintzat hartu diren hirigintza-garapeneko mailak: gaur egun urbanizatu gabe dauden zonak eta gaur egun urbanizazio finkatua duten zonak.

Honakoa da eremu horietako bakoitzerako ezarritako lurzoruaren erabilera-erregimena:

### I. 10 URTEKO BIRGERTATZE ALDIKO UR GORALDIETAN URPEAN GERATUKO DIREN EREMUAK

Ibai-sistemarekin oso lotuta dauden esparruak dira, urtean urpean geratzeko probabilitatea % 10etik gorakoa dutenak.

I.A. Gaur egun urbanizatu gabe dauden eremuak

Lur-zerrenda horretan ezin izango da hirigintza-erabilerarik garatu, ibai-ekosistema eta haren ahalmen hidraulikoa mantentzearekin eta gozatzearekin guztiz lotuta dauden hirigintza-erabilerak izan ezik. Ur-bazterretako jardunak eraginpean dagoen ibai-tartearen egoera ekologiko ona lortzera edo mantentzera bideratuko dira.
Paralelismoak saihestuko dira, hau da, zerrenda horretan bideratutako azpiegiturek ez dute luzetarako trazadura izango. Ibaiaren hurbileko ingurunea, eta ibaia bera, errespetatu beharreko espaziotzat jo behar dira –eta ez zerbitzu-galeria gisa–. Espazio hori funtsezkoa izango da ur-bazterreko korridorea garatzeko eta, hala, ibaiaren ekosistemaren egoera ekologikoaren degradazioa, higadura eta poluzioa kontrolatzeko. Azpiegitura linealek gurutzatzea soilik baimendu ahal izango da, betiere haien inpaktua minimizatuz.

Ingurunearekin lotzen diren erabilerak soilik garatu ahal izango dira, hala nola ibaietako eta ur-bazterretako ekosistemaren kontserbazioa, ahalmen hidraulikoaren kontserbazioa, drainatze iraunkorra, eta zaintza eta salbamenduko lanak. Atseden, aisialdi eta kirolaren arloko jarduerak garatu ahal izango dira, baldin eta lursaila edo ur-bazterrak aldatzea eragiten ez badute, eta bertan eraikitzea ekartzen ez badute. Hala badagokio, uholde-lautadetan sortzen diren fluxuak oztopatuko ez dituzten eta ur-bazterretako eta ibilguetako egoeran eraginik izango ez duten segurtasun publikorako beharrezko neurriak aurreikusi beharko dira.

I.B. Gaur egun urbanizazio finkatua duten eremuak

Zerrenda horietan gaur egun dauden eraikuntzak lekuz aldatzea bultzatuko da. Horretarako, kalte-ordainei aurre egiteko eta eraginpean dagoen lurraldearen erabilera leheneratzeko aukera emango duten balorazioak egingo dira, eta bidezko planak antolatuko dira. Gaur egun dagoen arriskuan, kapitala naturala leheneratzeko aukeran, ingurumenaren gaineko eraginean eta espero den onuran justifikatuko dira balorazio ekonomikoak. Edonola ere, honako zehaztapenak bete beharko dira:

1. Ez dira onartuko eremu horiek eraikitzea edo urbanizatzea ekarriko duten beste aprobetxamendu batzuk, gaur egun dagoen eraikuntza eta urbanizazioa birmoldatzeko edo ordezkatzeko kasuetan izan ezik, betiere egungo hiri-garapena zaharkitua egoteagatik berau berritzea beharrezkoa denean, eta ondoren aditzera ematen diren salbuespen-kasuak betetzen direnean.
    a. Gaur egun hiri-lurzoru gisa sailkatuta dauden eta urbanizazioa finkatua duten lurzoruak izatea, beste lurzoru batzuk erabiltzeko ezintasuna justifikatzen denean soilik –lurraldearen morfologiagatik, urpean geratuko ez diren zonetan etorkizuneko garapenak kokatzea oso zaila denean–.
    b. Arraste, diluzio edo iragazteen ondorioz giza osasunerako eta ingurunerako (lurzorurako, uretarako, landaredirako eta faunarako) kaltegarriak izan daitezkeen produktuak biltegiratzen, eraldatzen, manipulatzen, sortzen edo isurtzen dituzten instalazioak ez izatea, ezta ikastetxeak, osasun-etxeak, zaharren egoitzak, gutxitu fisikoen edo psikikoen egoitzak, su-hiltzaileen etxeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaien hornitegiak, abeletxeak eta abere-haztegiak ere.

2. Jardun horiek baimentzen badira, bertan gaur egun dagoen arrisku larria kontuan izan beharko da, eta, jarduna garatzean, behar besteko segurtasun-maila ezarri beharko da, baita jardunaren

iraunaldi osoan ere. Nolanahi ere, jardunak ez du eragin kaltegarririk sortu behar inguruneko uholde-arriskuan. Horretarako, garapenari ekin aurretik, benetako arriskua zehaztuko duen eta beharrezko segurtasun-neurriak definitzeko aukera emango duen xehetasuneko azterlan hidraulikoa egin beharko da. Komeni da, besteak beste, dokumentu honen eranskinean adierazten diren eraikuntza garatzeko proposatutako neurriak kontuan hartzea.

3. Jardun horiek Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimena lortu beharko dute, eta bidezko azterlan hidraulikoa gaineratu beharko da baimen hori lortzeko izapideetan.

4. Zona horietan dauden pertsonak eta ondasunak babesteko gauzatu beharreko uholdeen aurkako babesak diseinatzean, eraginpean dagoen ibai-tartearen egoera ekologiko ona mantentzen edo lortzen saiatzeko printzipioa izan beharko da aintzat. Horretarako, gaur egun dagoen arriskua murrizteko eta, ahal den heinean, eraginpean dagoen ur-masaren egoera ekologiko ona mantentzea edo lortzea ahalbidetuko duten obrak gauzatzeko behar besteko espazioa erreserbatzen ahaleginduko da.

II. 10 ETA 100 URTE ARTEKO BIRGERTATZE ALDIKO UR GORALDIETAN URPEAN GERATUKO DIREN EREMUAK

Urpean geratzeko arrisku handia duten eremuak dira, hori gertatzeko probabilitatea % 1,0 eta % 10 artean dutenak.

II.A. Gaur egun urbanizatu gabe dauden eremuak

Zona horietan ez dira onartzen bizitegi, merkataritza eta industriarako eraikuntza-erabilerak, ezta ibilguekiko paralelo diseinatutako azpiegitura linealak ere, saneamendu-azpiegiturak izan ezik. Oztopo fisiko artifizialez libre mantendu beharko dira.

Egokiak izan daitezke instalazio eraikiak behar ez dituzten olgeta-jardueretarako eta kirol-jardueretarako, baita balio naturalak nabarmenduko dituzten berdeguneetarako, lurraldea zaintzeko eta azpiegitura linealak gurutzatzeko ere. Haatik, larrialdi, abisu eta hustuketetarako prozedura egokiak finkatuta izan beharko dituzte.

Eremu horietan dauden eraikuntza isolatuek guztiz salbuespenezkoak izan beharko dute, eta eraikuntza historikoetara eta beste inon kokatu ezin diren behar bezala justifikatutako azpiegituretara mugatuko dira.

Ez da onartuko, inola ere, beste ubideratzerik egitea eremuaren uholde-arriskua murrizteko helburu hutsarekin.

II.B. Gaur egun urbanizazio finkatua duten eremuak:

Eremu horietan lekuz aldatutako eraikuntzak berriro kokatzea sustatu beharko da, ahal den heinean, baita instalazio edo eraikuntza zaharkituak arrisku txikiagoko zonetara lekuz aldatzea ere. Irizpide

orokorra hori bada ere, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Hirigune historikoetako eraikuntzak berritzeko edo birgaitzeko kasuetan, ondasunak eta pertsonak uholde-arriskuaz babesteko hartu beharreko neurriak aurreikusiko dira eman beharreko baimenetan. Edonola ere, bermatu egin beharko da eraikuntza diseinu egokiarekin egiten dela eta eraikuntza berriek gaur egun dagoen arriskua areagotzen ez dutela –ez lekuan bertan, ez ingurunean–. Eraikuntza egokitzeko berariazko hainbat neurri kontuan hartzea komeni da.

2. Urpean gera daitezkeen zona horietako hiri-bilbe finkatuetan okupatu gabe dauden tarteetan soilik baimendu ahal izango dira beste eraikuntza batzuk –salbuespen gisa eta interes orokorrari begira–. Haatik, gaur egun dagoen arrisku-egoera hartu beharko da kontuan, eta, jarduna garatzen denean zein jardunak irauten duen bitartean, behar besteko babes-maila dagoela eta jardunaren segurtasuna ziurtatzen dela bermatu beharko da, ingurunearen uholde-arriskua areagotu gabe. Eraikuntza egokitzeko berariazko hainbat neurri kontuan hartzea komeni da.

3. Jardun horiek Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimena lortu beharko dute, eta bidezko azterlan hidraulikoa gaineratu beharko da baimen hori lortzeko izapideetan.

4. Ekipamendu publiko berriak kokatzeko, berriz, uholde-arrisku handia duten zona horiek saihestuko ditu udal-agintaritzak, batez ere mugikortasun mugatua duten pertsonengan eragina badute (haurrengan, adinekoengan, gaixoengan, eta abar) edo larrialdietan funtsezkoak diren zerbitzuetan eragina badute.

5. Aurreko puntuaren salbuespen gisa, berdegune kalifikatutako ibaien ondoko ibai-parkeak onartuko dira, baldin eta ibaiaren balio naturalak nabarmentzen badituzte eta uholde-arriskua dagoenean ohartarazteko baliabideak badituzte, baita pertsonak bertatik irteteko erraztasunak badituzte ere (minusbaliatuentzako arrapalak, eta abar).

6. Larrialdi-zerbitzuak badaude, horietara heltzeko sarbidea bermatu beharko da beti.

7. Uholdeen aurkako babesak diseinatzean, eraginpean dagoen ibai-tartearen egoera ekologiko ona mantentzen edo lortzen ahalegintzeko printzipioa izango da kontuan. Horretarako, gaur egun dagoen arriskua murrizteko eta, ahal den heinean, eraginpean dagoen ur-masaren egoera ekologiko ona mantentzea edo lortzea ahalbidetuko duten obrak gauzatzeko behar besteko espazioa erreserbatzen ahaleginduko da.

III. 100 ETA 500 URTE ARTEKO BIRGERTATZE ALDIKO UR GORALDIETAN URPEAN GERATUKO DIREN EREMUAK

Urpean geratzeko arrisku txikia duten eremuak dira, hori gertatzeko probabilitatea % 0,2 eta % 1 artean dutenak.

III.A. Gaur egun urbanizatu gabe dauden eremuak

Eremu horietan komeni da uholde-arriskuaren baldintza naturalarekin bateragarriak diren erabilerak garatzea, nahiz eta beste hirigintza-jardun batzuk baimendu ahal izango diren. Alabaina, beste lurrik ez dagoela behar beste justifikatzen denean soilik baimenduko da. Kasu horietan irizpide hauei jarraituko zaie:

1. Hirigintza-aprobetxamenduen lerrun zabala onartuko da, funtsezko azpiegitura publikoak izan ezik, hala nola ospitaleak, su-hiltzaileen etxeak edo antzeko zerbitzu publikoak.
2. Haatik, onartzen diren hirigintza-aprobetxamendu horiek 500 urteko birgertatze-aldirako uholde-arriskuez kanpo geratuko den kota batean garatu beharko dira. Horretarako, beraz, ingurumen-arloan onar daitezkeen neurri zuzentzaileak definitu eta justifikatuko dituen xehetasun handiko azterlan hidraulikoa eta ingurumenekoa eskatuko da –neurri zuzentzaile horiek ez dute, inola ere, ingurunean aurretik dagoen uholde-arriskua areagotuko–.

III.B. Gaur egun urbanizazio finkatua duten eremuak

Eremu horietan gaur egun dauden erabilerei eutsi ahal izango zaie, baina arriskuaren gainean jarduteko aukera emango duten neurri zuzentzaile isolatuak hartzea gomendatuko da. Dena den, neurri horiek kalteen maila murriztera eta gaur egun dauden eraikuntzen urrakortasuna ezabatzera bideratu beharko dira. Horretarako, egiturazko hobekuntzak planteatu ahal izango dira eraikuntzetan, sarbideetan eta bideetan; zona biztanduak zona ziurrago batzuetara eramatea sustatuko da; jarduera edo eraikuntza uholde-arriskurik gabeko edo uholde-arrisku txikiko zona batera eramateko pizgarri ekonomikoak lortzea planteatuko da; eta, hala badagokio, uholde-arriskuarekin bateragarria den espazio librea eratzea hartuko da aintzat.

Neurri zuzentzaileen proiektuak justifikatuko badira, egin diren hobekuntzak ez ezik, eragin den kalteen murrizketa –edo urrakortasuna ezabatzea– ere justifikatu duen azterlan hidraulikoa gaineratu beharko da.

IV. 500 URTEKO BIRGERTATZE ALDIKO UHOLDE ORBANAZ KANPO GERATZEN DIREN EREMUAK

Urpean geratzeko arrisku oso txikia duten edo arriskurik ez duten eremuak dira, hori gertatzeko probabilitatea % 0,2tik beherakoa dutenak.

IV.A. Gaur egun urbanizatu gabe dauden eremuak

Ez da erabiltzeko murriztapenik ezarri; haatik, jardunaren ondorioz isurketa areagotzen ez dela ziurtatu beharko da –betiere egoera naturalean duen balioarekiko edo, gutxienez, aurretik dagoen egoerarekiko–. Urbanizazioan, drainatze iraunkorrerako diseinuak sartzen ahaleginduko da.

Eremu horiek egokiak dira funtsezko azpiegitura publikoak ezartzeko, hala nola ospitaleak, su-hiltzaileen etxeak, segurtasun publikoko azpiegiturak edo larrialdietarako biltegiak. Larrialdi-egoeretan –uholde garrantzitsuetan esate baterako– iristeko arazorik izango ez duen kokaleku batean daudela ziurtatu beharko da.

IV.B. Gaur egun urbanizazio finkatua duten eremuak

Urbanizazioak berritzean, drainatze iraunkorreko diseinuak erabiltzen saiatuko da, ahal den kasuetan bederen. Drainatze iraunkor horri esker, iragaztea erraztuko da, eta emaria ibilguetara sar dadin atzeratuko da.

## V.- URPEAN GERA DAITEZKEEN EREMUETAN KOKATU BEHARREKO ERAIKUNTZA EGOKITZEKO NEURRIAK

Hauek dira, aurreko azpiataletakoren batean aipatutakoaren arabera, urpean gera daitezkeen eremuetan kokatu beharreko eraikuntzak egokitzeko neurriak:

1. Uholdeen aurrean jarduteko jarraibideak eta kontingentzia-planak lantzea, baldin eta pertsona ugari dauden –aldi baterako edo etengabe– esparruetako segurtasuna bermatzeko beharrezkoa bada.

2. Behe-oinean bizitegi-erabilera saihestea. Ahal izanez gero, kota goratzea.

3. Eraikuntza berriak gainezka egiten duen fluxuaren noranzkoan orientatzea, zeharkako antolamendua saihestuz beti.

4. Sotoak ezabatzea. Ezinezkoa bada, itxitura hermetikoekin iragazgaitz egin beharko dira. Uholde-kotaren gaineko arnasbideak izan beharko dituzte, eta sarbidearen atalasea arrapala bidez edo eskailera-maila bidez goratu beharko da. Edonola ere, lurraren edo kalearen sestraren azpitik bizitegi-erabilera, industria-erabilera eta merkataritza-erabilera saihestu beharko da –arraste, diluzio edo iragazteen ondorioz giza osasunerako eta ingurunerako kaltegarriak ez diren gaiak edo ondasunak biltegiratzea izan ezik–.

5. Eraikuntzak babesteko egiturazko neurriak aplikatzea, eta, hala, 500 urteko birgertatze-aldiko uholdearen kotari dagokion ur-altuera batek eragin dezakeen inpaktua, bultzada, presioa eta/edo azpi-presioa eusteko gai izango diren zimendatzeak, forjatuak, egiturak eta itxiturak kalkulatzea.

6. Behe-oineko azalera itxia murriztea eta, horretarako, irekiera kopurua murriztea, ateetan eta leihoetan itxitura hermetikoak ezartzea, eta goian dagoen oina zutabeen gainean antolatzea.

7. Goi-oinetarako, teilatuetarako edo zabaltzetarako sarbideak antolatzea, batez ere etxe baxuetan.

8. Etxebizitzetako hustubideak itzultze-aurkako balbulekin zuzkitzea, eta eraikuntzaren punturik baxuenean drainatze-ponpak instalatzea -ponpa horiek ez dira estolderia-sarera konektatuko eta talde elektrogeno bidez elikatuko dira-.

9. Arriskurik gabeko kokalekuetan ezarri ezin diren elementu flotatzaileak ainguratzea, hala nola urandelak eta gas-biltegiak.

## 4.5.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO IRITZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren sustatzaile den aldetik, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du planteatu 4/1990 Legearen 13.4. artikuluan aintzat hartzen den oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak formulatzeko aldia. Hortaz, ez dira ezagutarazi orain arte bildutako iritziak.

## 4.6.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANEAN AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBAREN INGURUMEN EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan aintzat hartutako antolamendu-alternatiban biltzen diren erregulazioen ingurumen-egokitasunaren justifikazioa honetan datza: erregulazio horiek zorrotzagoak dira eta gehiago babesten dituzte urpean gera daitezkeen ibaietako ertzak. Izan ere, Lurraldearen Arloko Planaren araudian parametro erregulatzaile babesleagoak gaineratzen direnez gero –ingurumenaren ikuspegitik zein ikuspegi naturalistikotik–, lagungarriak izango dira ingurumen-baliabideen zaintza areagotzeko eta ingurumenaren babesa gehitzeko, 2002-2020ko Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiarekin bat eginik.

Era berean, Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Europar Batasunaren 2000/60/EE Uraren Esparru Arteztarauarekin eta Eusko Jaurlaritzaren 1/2006 Legearekin (Uraren Legearekin) homologatzeko hautatutako alternatibak ingurumen-egokitasuna bermatuko du.

# 5.- PLANAREN JARDUNEN INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

## 5.1.- PLANAREN HELBURUEN BALIZKO INGURUMEN ERAGINEN AZTERKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) helburu nagusiak dira:

- Izena sinpleago egitea, ertzei buruzko erreferentzia ezabatuz.

- Lurraldearen Arloko Planaren Araudian txertatzea Uren Zuzendaritzak landutako “Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak”.

- Lurraldearen Arloko Planean txertatzea Uren Zuzendaritzak berriki landu dituen uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak eta Uren Zuzendaritzak landutako "Azterlan hidraulikoak diseinatzeko irizpide teknikoak" dokumentua.

- Ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako ibai-tarteen berezko erregulazio gisa aplikatuko diren arauzko zehaztapenen erreferentzia zehatza txertatzea Lurraldearen Arloko Planaren Araudiari –Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauari jarraituz, Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE Erabakiak eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE Erabakiak onartu zituzten leku horiek–.

- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak helarazitako Natura 2000 sareko ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda eta horien kokalekuen mapa Lurraldearen Arloko Planaren eranskin gisa txertatzea.

- Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Uraren Esparru Arteztarauaren xedapenetara –2000/60/EE– eta Eusko Legebiltzarreko 1/2006 Uraren Legera egokitzea.

- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak eta Uren Zuzendaritzak adierazitako akats batzuk zuzentzea eta arauzko doikuntza batzuk egitea.

Helburu horiek lortzearen ondorioz ingurumenaren gainean sor daitezkeen eraginak lagungarriak izango dira ingurumen-baliabideen zaintza areagotzeko eta ingurumenaren babesa gehitzeko, 2002-2020ko Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiarekin bat eginik. Izan ere, Lurraldearen Arloko Planaren araudian parametro erregulatzaile babesleagoak gaineratzen dira –ingurumenaren ikuspegitik zein ikuspegi naturalistikotik–.

## 5.2.- PLANAREN JARDUNEN BALIZKO ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Ingurumen-inpaktuak eragin ditzaketen Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren zehaztapenen ondoriozko bi motatako eraginak bereizi dira: Planaren erregulazio arautzailea bera, eta Plana garatzeko programen eta proiektuen ondoriozko jardunak.

Lehenari dagokionez, Planaren erregulazio arautzailean ez dira berariaz aintzat hartzen esku-hartze behartuak edo erabilera-baimenak, esku hartzeko eta/edo erabiltzeko mugak edo murrizketak baizik. Muga eta murrizketa horiek aurretik dauden mugei eta murrizketei gaineratzen zaizkienez gero, erregulazioaren aplikazioak lurreko zein ibaiko ingurunean eragin ditzakeen inpaktuak positiboak izango dira beti. Planaren esparruaren barruan biltzen diren ingurumeneko elementurik baliagarrienen gaineko babes erantsia dira.

Bigarrenei dagokienez, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa onartuz geroztik, eta haren zehaztapenei lotuta, garatzen diren programek eta proiektuek ingurumenaren gainean eta lurraldeko baliabide naturalistikoen gainean eragiten dituzten inpaktu negatiboak murriztu egingo dira –edo gutxienez ez dira areagotuko–, betiere urpean gera daitezkeen ibaietako ertzak erregulatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan ezarritako muga eta murrizketa handiagoen ondorioz.

### 5.2.1.- Inpaktuak identifikatzea eta aurreikustea

#### 5.2.1.1.- Baliabide naturalistikoak galtzea

Planaren aplikazioaren ondoriozko erregulazioetan eta jardunetan ez da aurreikusten baliabide naturalistikoak galtzea edo murriztea, ez baita zuzenean edo zeharka eraginik sortzen ekosistemetan, habitatetan eta espezie baliotsuengan.

#### 5.2.1.2.- Ingurumen-arloan sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Ez da eraginik sortzen espazio natural babestuen gainean, Planak espresuki ematen baitu aditzera zona horietarako kasuak kasu aurreikusten den berariazko babes-erregimenera jo beharko dela.

Gauzak horrela, 3.3. epigrafean zehatz-mehatz zehazten da Planak lehentasuneko interes naturalistikoko zona gisa identifikatutako ibai-ertzak edo ingurumenaren arloan sentikorrak diren zona gisa identifikatutakoak.

#### 5.2.1.3.- Baliabide paisajistikoen gaineko eraginak

Ez dago baliabide paisajistikoen gaineko eraginik, paisaiaren kontserbazioa baita ibai-ekosistema kontserbatzeko eta babesteko Planaren oinarrizko helburuen ondorioetako bat.

#### 5.2.1.4.- Baliabideen gaineko eraginak

Planak ez du baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari buruzko planteamendurik egiten. Hortaz, ez da aurreikusten alor horretako eraginik.

#### 5.2.1.5.- Hondakinak sortzea eta poluzioa areagotzea

Planean ez da hondakinak sortzea ekarriko duten esku-hartze esanguratsurik aurreikusten.

#### 5.2.1.6.- Beste eragin batzuk

Planean aurreikusten den erregulazio bakar batek ere ez du giza osasunean eraginik. Ez da, halaber, hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eraginik aurreikusten.

Planak ezartzen duen erabileren eta jardueren erregulazioak ez du zuzenean eragiten produktibitate ekologikoaren galera edo nekazaritza-produktibitatearen galera. Ibai-ertzetako hiri-garapen berrien kasuan soilik gal daiteke nekazaritza-produktibitatea. Hala ere, jardun horiek diseinatu eta baimenduko dituzten plangintza-tresnetan ebaluatu beharko da alderdi hori. Edonola ere, jardun horiek ere ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozeduraren mende izango dira.

Planaren jardunen edo proposamenen ondorioz ez da aurreikusten kultura-ondarearen gaineko eragin negatiborik.

Mugaz haraindiko eraginik ere ez da hauteman.

#### 5.2.1.7.- Planaren proposamen batzuen ingurumen-inpaktua zehazteko zailtasunen eta ziurgabetasunen deskribapena

Planaren ingurumen-inpaktua, oro har, positiboa den arren, nabarmendu behar da Planaren ondoriozko hainbat jardunetan arreta berezia jarri beharko dela gauzatze-fasean –edo abian jartzeko fasean– eragin daitezkeen inpaktu negatiboak konpontzeko edo zuzentzeko.

Ildo horretan, ondoren zerrendatzen diren esku-hartzeak proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren mende jartzea proposatu da:

- Hondakin-uren araztegiak eraikitzea edo ibai-ertzetan kokatu beharreko beste azpiegitura batzuk eraikitzea.
- Ibai-ertzekin muga egiten duten lurzoru urbanizagarriko beste sektore batzuk hirigintza-mailan garatzea.

### 5.2.2.- <u>Inpaktuen deskribapena</u>

Baterako Ebaluazioari buruzko Dekretuaren Eranskinean iradokitzen den metodologiaren arabera egin da Planaren ondoriozko balizko inpaktuen deskribapena. Aurreko epigrafeetako deskribapenaren arabera bereizi dira jardunak.*

Arauzko xedapenen eta erabileren esleipenaren ondoriozko inpaktuen deskribapena.

| Eraginpeko ingurunea | Prob. | Zeinua | Denb. | Iraup. | Itzulg. | Lehener. | Munta | Eragin. | Ziurtas. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Baliabide naturalistikoak | H | + | P | I | IE | LE | H | ZU | T |
| Zona sentikorrak | H | + | P | I | IE | LE | H | ZU | T |
| Baliabide paisajistikoak | H | + | P | I | IE | LE | H | ZU | T |
| Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak | E | + | G | I | IG | LG | E | ZE | T |
| Hondakinen sorrera | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA |
| Poluzioa gehitzea | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA |
| Giza osasuna | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA |
| Hiri-pasaia | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA | EA |
| Produktibitate ekologikoa | H | + | P | I | IE | LE | H | ZE | T |
| Nekazaritza-produktibit. | T | - | G | AB | IE | LE | T | ZE | H |
| Kultur Ondarea. | H | + | P | I | IE | LE | E | ZU | T |

**Prob.: Gertatzeko probabilitatea** (**H:** handia, E : ertaina, T : txikia). **Zeinua** (**+ :** positiboa, - : negatiboa), Denb. **: Denbora** (**P :** Planaren barruan, G : geroratua), Iraup.: **Iraupena** (**I :** iraunkorra, AB : aldi baterakoa), Itzulg.: **Itzulgarritasuna** (**IG :** itzulgarria, IE : itzulezina), Lehener. **Leheneragarritasuna** (**LG :** leheneragarria, LE : leheneraezina), Munta (H : handia, E : ertaina, T : txikia), Eragin.: Eraginak (ZU : zuzenekoak, ZE : zeharkakoak), Ziurtas. **: Ziurtasuna** (**H :** handia, T : txikia); Orokorrean (EA : ez aplikagarria)

Inpaktu bakarra jo da negatibotzat: ibai-ertzetan hirigintzako edo azpiegiturako garapenen bat gauzatzearen ondorioz nekazaritza-produktibitatearen gainean sor daitekeen eragina. Dena den, jardun horiek garatuko badira, nahitaez definitu beharko dira jardunak plangintzako beste tresna batzuetan, eta plangintza-tresna horiek ere baterako ebaluazioaren prozeduraren mende egongo dira. Orduan zehaztu ahal izango dira xehetasun handiagoarekin sor daitezkeen eraginak. Edonola ere, inpaktu horiek neurrizkoak izango dira.

Ez da hauteman, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ondoriozko inpaktu kritikorik.

* I. Eranskina. 1131/1988 Errege Dekretuaren kontzeptu teknikoak –1131/1998 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua gauzatzeko erregelamendua onartzen duena–.

II. Eranskina. 2001/42 Arteztaraua, 2001eko ekainaren 27koa, hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean dituzten eraginen ebaluazioari buruzkoa; 2001/42 Arteztarauaren aplikazioaren 3.48 eta 3.61. arteko idatz-zatiak.

# 6.- NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA

## 6.1.- SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketan aintzat hartzen diren esku-hartzeak pixkanaka garatzean, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko beheragoko lerrun txikiagoa duten planak edo programak jarri beharko dira abian. Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko plan edo programa horien diseinuan neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak finkatu beharko dira, eta zeregin horretarako irizpide eta jarraibide orokor nagusiak bilduko dira kapitulu honetan.

Neurrien proposamen horiek lantzean, 1.2. puntuan definitu diren ingurumen-irizpide estrategikoak eta 2.3. puntuan zehaztutako planetan eta programetan barne hartzen direnak hartu dira kontuan, baita honako hauek ere:

- Lurraldearen baliabide paisajistikoak babestea, eta paisaia berezien eta kalitate eta naturaltasun handikoen kontserbazioa sustatzea.

- Bertako basoen azalera gehitzea.

- Kontserbazio egoera onean daude ur-bazterreko basoak leheneratu eta zaindu daitezen sustatzea, horien lotura-ahalmena ez eteteko moduan.

- Landare-espezie exotiko inbaditzaileak bertatik ateratzeko eta kontrolatzeko neurriak barnean hartzea.

- Oso baldintza bereziak dituzten ibai-ibilguekin lotzen diren flora bereziko espezieen kontserbazioa sustatzea (adib. iratze makaronesikoak).

- Ibai-ibilguak bertako zuhaixkekin eta zuhaitzekin lehenera daitezen sustatzea.

- Ingurunea artifizializatuko duten jardunak saihestea, hala nola hormigoizko babesak, ibilguen erregularizazioak eta ur-bazterreko lorategi-zonak.

- Ingurumen-portaera hobea duten ingeniaritza naturalistikoko teknikak txertatzea uholdeak prebenitzeko jardunetan eta azpiegiturak egonkortzeko jardunetan.

- Gaur egun dauden edo aurreikusten diren azpiegituretan faunarako iraganbide egokiak gaitzea.

- Ondare historiko, kultural eta arkitektoniko katalogatuko elementuen gaineko inpaktua saihestea, batez ere zubiei dagokienez. Beharrezkoa izanez gero, lekuz aldatzea eta berreraikitzea iradoki da.

- Lurzoru batean lur-erauzketak edo lur-higidurak egiten direnean, jardun horien ondoriozko poluzioaren aztarnak hautematen badira, jardun horien arduradun zuzenak

horren berri eman beharko die dagokion Udalari eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organo eskudunari. Edonola ere, soberako lurzoruaren kalitateak bateragarria izan beharko du kokaleku horretarako aurreikusten diren erabilerekin (1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa).

- Ibaietan gertatzen diren aldaketen ondorioz ur gezako hartuneetako urak eraginpean egon daitezen saihestea.

- Ibai-ibilguetan egin beharreko lanak direla eta, obra horietatik uretan behera dauden bainurako uren kalitatea eraginpean egon dadin saihestea (batez ere maiatza eta urria artean egin beharreko lanen kasuan).

## 6.2.- INGURUMENEKO ESPARRU PROGRAMAREN HELBURU ETA KONPROMISOETARA EGOKITZEKO PROPOSAMENA

Tokiko plangintza idazteko lanen hasiera-hasieratik, tokiko plangintza gidatu behar duten ingurumen-irizpideak hartzen dituzte aintzat lurralde-iraunkortasunaren alorreko gaur egungo erreferente komunitarioek –"Ingurumenaren eta garapen iraunkorraren arloko politika eta jarduneko programa komunitarioa (COM 23-1992)", "Hiri eta herri iraunkorrei buruzko Europako III. Konferentzia (1996)", "Europar Batasuneko hiri-garapen iraunkorrerako jardun-esparrua (EE 1999)", "Europar Batasunerako garapen iraunkorreko estrategia (2001)"–.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programak iraunkortasunerantz aurrera egiteko bere egin beharreko konpromisoen artean aipatzen du, besteak beste, iraunkortasunaren irizpideak eta helburuak txertatzea 2003. urteaz geroztik egin edo berraztertzen diren planetan eta programetan –Jaurlaritzarenak, Foru Aldundienak, Mankomunitateenak edo Udalenak– (...)".

## 6.3.- NEURRI BABESLE OROKORREN PROPOSAMENA

Hauek dira beheragoko lerruna duten planak edo programak diseinatzeko proposatutako neurri babesle orokorrak:

- Proposamen berrien eraginpean egon daitekeen lurraldean arrisku geoteknikoak saihestuko dira, bai garatzen den proiektu bakoitzean eranskin geoteknikoak nahitaez txertatu beharraren bitartez, bai ondorio horretarako gatazkatsuak izan daitezkeen zonetan proiektuak ezartzeko debekuaren bitartez.

- Eskumena duten Administrazioek (Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak) zehaztutako interes geologikoko guneen gaineko eragina saihestuko da.

- Horizonte edafiko baliotsuenak bereizita leheneratzeko aukera emango duten gomendioak eskatuko dira. Metatzeko modurik komenigarriena ere zehaztuko da. Okupatu beharreko zonetako lurzoru emankor guztietan, landare-lurra behar bezala

bereizi eta metatuko da, ezaugarririk nagusienak galdu gabe. Horrela, ondoren berriro landarez estali beharreko ezpondetan eta lurrazaletan erabili ahal izango da landare-lur hori, baita zona horretako nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera duten lursailak hobetzeko ere.

- Ibilguen erregimen hidraulikoa mantentzea behar bezala bermatu beharko da beti. Horretarako, behar bezain handiak izan beharko duten sekzioak aurreikusi beharko dira, funtzionamendu hidrauliko zuzena bermatu beharko baita, bai erregimen normalean, bai ur-goraldietan.

- Lurraldean dauden ibilguak gainditzera zuzentzen diren egiturek diseinu zuzena edukitzea zainduko da. Diseinu bereziak nahiago izango dira. Bestalde, aire zabaleko pasabideak eta ubideratzeak sustatuko dira, ahal den heinean.

- Arauzko babesa duten intereseko landaredi-formazioen gaineko eragina saihestuko da. Honako legeriaren zehaztapenen erreferentzia zehatza egin da: 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena; 167/1996 Dekretua, ekainaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena; 1997ko uztailaren 8ko Agindua eta uztailaren 10eko Agindua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan beste espezie batzuk sartzen dituena; Bernako Hitzarmena, Europako basa bizitzaren eta ingurune naturalaren kontserbazioari buruzkoa; 92/43/EEE Arteztaraua, habitat naturalen eta basa faunaren eta floraren kontserbazioari buruzkoa; 439/90 Dekretua, Espezieen Katalogo Nazionalari buruzkoa, eta aurrekoa osatzen duen 19/1977 Dekretua; eta abar.

- Interes faunistikoko eremu nagusien gaineko eragina saihestuko da, baita indarrean dauden askotariko arauek babesten dituzten espezieen balizko banaketa-eremuaren gaineko eragina ere. Honako legeriaren zehaztapenen erreferentzia zehatza egin da: 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena; 167/1996 Dekretua, ekainaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena; 1997ko uztailaren 8ko Agindua eta uztailaren 10eko Agindua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan beste espezie batzuk sartzen dituena; Bonngo Hitzarmena, basa animalien espezie migratzaileen kontserbazioari buruzkoa; Bernako Hitzarmena, Europako basa bizitzaren eta ingurune naturalaren kontserbazioari buruzkoa; 92/43/EEE Arteztaraua, habitat naturalen eta basa faunaren eta floraren kontserbazioari buruzkoa; 79/409/EEE Arteztarau eta 91/294/EE Arteztaraua, basa hegaztien kontserbazioari buruzkoak; 439/90 Dekretua, Espezieen Katalogo Nazionalari buruzkoa, eta aurrekoa osatzen duen 19/1977 Errege Dekretua; eta abar.

- Espazio jakin baterako kontraste paisajistiko jasanezinak sortzen dituzten proposamen guztiak baztertuko dira, eskalen desproportzioarekin eta balio ekologikoen eta/edo

kulturalen galerarekin lotu ohi dena. Nekazaritza eta basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapenean ondorio horretarako egiten diren katalogazioen mende ere egongo da.

- Proposamenetako bakar batek ere ez du eraginik izango katalogatutako inolako elementutan edo katalogatzeko dagoen edozein elementutan. Edonola ere, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, baita eskumena duten Administrazioen gomendioei ere.

- Ez dira onartuko biztanleriari eragozpen zuzentezinak eragingo dizkieten proposamenak. Legezko atalaseak ez ezik, gizakiarentzat onartezinak diren eraginak ere hartuko dira aintzat, hala nola usainak sortzea, izurriak hedatzea, eta abar.

- Behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, Parke Naturalen gainean, Natura 2000 sareko espazioen gainean, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek definitutako espazioen gainean eta abar jarduteko edozein proposamen baztertuko da.

- Proposamenak garatzen dituzten proiektu guztiek lurraldearen zonifikazioa gaineratu beharko dute. Hiru babes-maila finkatu beharko dira, obren jarduera osagarrien eta laguntzaileen kokalekuari dagokionez. Adierazitako ondorioetarako zona baztertuak, zona murriztuak eta zona libreak gutxienez adieraziko dira.

- Proiektu guztiek aztertu beharko dute beharrezko zabortegien kokalekua. Horretarako, honako irizpideak izango dituzte kontuan: okupazioaren ondoriozko eragin adierazgarriak gutxitzea, eragin paisajistikoak murriztea, gaur egun degradatuta dauden eremuak leheneratzea, zentzuzko ahalmenak definitzea, proposamena eta etorkizuneko erabilerak bateragarri egitea, eta abar.

- Proiektu guztiek zehatz-mehatz definituko dute hondakinen ingurumen-kudeaketarako plana. Planak kontuan hartuko ditu hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea, 833/1988 Errege Dekretua, 952/1997 Errege Dekretua (Estatukoak), eta hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko 423/1994 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegokoa).

  Era berean, erabilitako olioen eta mundrunen aipamen espresa egingo du. Hondakin toxiko eta arriskutsu gisa tratatuko dira, eta honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira: hondakinei buruzko 10/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan erabilitako olioen kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Errege Dekretuan, eta horiekin bat datozen gainerako araudietan ezarritakoaren arabera. Hondakinak behar bezala etiketatutako ontzietan biltzea eskatuko da. Ontzi horiek aurretik izendatutako zonetan utziko dira, behar bezala iragazkaiztua, estalkipean eta bereizita biltzea bermatzeko moduan.

Era berean, hondakin solidoak metatzeko berariazko zonak izendatuko dira. Obrak amaitzean, zehatz-mehatz garbitu beharko da guztia, eta obrak behar bezala errematatuko dira. Horrela, inguruetan obren arrastoak geratzea saihestuko da.

## 6.4.- NEURRI ZUZENTZAILE OROKORREN PROPOSAMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen eraginik adierazgarrienak tratatzeko proposatutako neurri zuzentzaileak ematen dira aditzera idatz-zati honetan:

- **Baliabide hidrikoak**

  Proiektu guztiek gaineratuko dituzte lur gaineko uren poluzioa ahal den heinean saihesteko neurri egokiak. Esate baterako, gisa honetako neurriak hartuko dituzte barnean:

  - Lurrazala iragazgaitea –geozuntzak dituzten oztopoen bitartez, eta gai poluitzaileak biltzeko eta bertatik ateratzeko lana erraztuko duten ur-hustuketako eta ur-bilketako elementuen bitartez–.

  - Jalkinak eusteko aldi baterako oztopoak instalatzea, proposamenen jardun-esparrutik hurbil dauden ibilguak babestearren.

  - Ura eusteko eta dekantatzeko aldi baterako putzuak.

  Era berean, eraginpean egon daitekeen esparruko akuiferoen karga-eremuetako poluzioa saihesteko neurriak proposatuko dira. Izatez, eraginpean egonik aldatzen diren ur-puntuak berrezartzeko neurri egokiak aplikatu beharko dira.

- **Lur-higiduren gaineko jardun geometrikoak**

  Proiektuek lur-higiduren ikus-inpaktua murrizteko eta paisaian integratzea errazteko neurriak hartuko dituzte barnean (ezponda berriak, ertzak biribiltzea, eta abar).

- **Landare-lurra metatzea eta kontserbatzea**

  Proiektu guztietan zehaztuko dira landare-lurra berrerabiltzea onartzeko eta baztertzeko baldintzak, landare-lurra metatzeko baldintzak, eta berriro erabili aurretik landare-lurra mantentzeko eta kontserbatzeko egin beharreko lanak.

- **Fauna**

  Proiektu guztiek izango dituzte faunaren mugikortasunaren gaineko inpaktua murrizteko jardunak, hala nola:

- Zeharkako drainatze-obrak eta bide azpiko iraganbideak faunarentzako pasabide gisa egokitu beharko dira. Gainera, eta fauna ornoduna bertatik pasatzea errazteko, berariazko landare-tratamendua behar duten pasabideen ahoak eta hurbileko inguruneak identifikatu beharko dira.
- Ornodun txikiak putzuetatik eta kutxatiletatik irten daitezen errazteko, luzetarako eta zeharkako drainatze-sistemak egokitu beharko dira. Halaber, ihes egiteko arrapalak aurreikusiko dira.

- Obren itxiera egokitu egin beharko da animaliak sar daitezen saihesteko eta barruan daudenak irteteko. Ihes egiteko atakak instalatuko dira, eta ur-ibilguak dituzten gurutzaguneetan anfibioak eta ugaztun txikiak sar daitezen saihesteko hesi osagarriak instalatuko dira.

- **Irisgarritasuna eta hautemandako zerbitzuak**

Zeharkatzen den lurraldearen iragazkortasun-baldintzak leheneratzea hartu beharko da aintzat proiektuetan. Horretarako, goitiko eta behetiko pasabideez zein beste irtenbide batzuez baliatu ahal izango da. Era berean, eraginpean dauden zerbitzu guztiak berriro jartzea hartuko da kontuan.

- **Leheneratzea eta integrazio paisajistikoa**

Proiektu bakoitzak honako helburuak lortzeko neurrietan oinarrituko den kapitulu zehatza eduki beharko du:

- Ur-bazterrak baso-berritzea.

- Higadura-prozesuak saihestea, batez ere proposamenen ondorioz sortutako lurrazal artifizial soiletan.

- Aldatutako lurrei obren aurretik zegoenaren edo hurbileko ingurunearen ahalik eta antzik handiena izango duen landare-konposizioa eta itxura ematea.

- Paisaian eragin handiena duten azpiegiturako elementuak ezkutatzea edo bista aldetik integratzea.

- Landarediaren galera beste enklabe egoki batzuetan egindako landaketekin konpentsatzea.

Idatz-zati honetako lehen puntuan sartzen diren jardunez gain, landareztatze zorrotza egin beharko da, eta bertako espezieak erabiliko dira ahal den neurrian. Apaindura-helburuak soilik justifikatuko du kanpoko espezieak landatzea ingurune egokian. Halaber, faunarentzako espezie erakargarriak erabiliko dira, babeslekuak eta elikagaiak eskaintzen dituztenak. Ereite hidraulikoan erabiltzen diren belarkara espezieei dagokienez, bigarren mailakoa da bertako espezieak erabiltzeko irizpidea. Izatez, helburua da ezpondak berehala landarez estaltzea, eta, horrela, lurrak eustea eta materia organikoarekin aberastea. Izan ere, ingurune egokia sortuko da artifizialki

ezarritako flora ordezkatuko duen tokian tokiko flora berez ezartzeko. Ildo horretan, bertako baldintza edafoklimatikoetara egokitzen diren, lorrerrazak diren, inbaditzaileak ez diren eta ereite hidraulikorako eraginkorrak diren espezieak erabiliko dira.

- **Ondarea**

Proposamenak garatzean, ondare historikoan eta artistikoan eragin negatiboak sortzea saihesteko –eta kautelazko neurri gisa–, kontrol arkeologikoko nahitaezko proiektua egin beharko da proposamenak garatuko dituen edozein obraren aurretik. Horrez gain, obra horien jarraipen arkeologikoa ere egin beharko da. Hortaz, ondorio horretarako zehaztapen zehatzak gaineratu beharko dira dagozkion proiektuetan.

- **Inpaktu paisajistikoa minimizatzea**

Proposamenen obren fasean zein funtzionamenduan, honako xedapenak errespetatu beharko dira hurbileko etxebizitzei eragiten zaizkien eragozpenak arintzearren: 212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, aire zabalean erabiltzeko makina jakin batzuen ondorioz ingurunean sortzen diren soinu-emisioak arautzen dituena; 79/113/EEE Arteztaraua; 84/533/EEE Arteztaraua, 85/406/EEE Arteztarauak aldatua; 84/534/EEE Arteztaraua, 87/405/EEE Arteztarauak aldatua; 84/535/EEE Arteztaraua, 85/408/EEE Arteztarauak aldatua; 84/537/EEE Arteztaraua, 85/409/EEE Arteztarauak aldatua; 86/622/EEE Arteztaraua, 89/514/EEE eta 95/27/EEE Arteztarauek aldatua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak eta beste xedapen batzuek ondorio horietarako ezartzen dituzten zehaztapenak.

Proposamenak abian jarri ostean, zarata-mailen jarraipena ere proiektuan sartzen dela egiaztatuko da. Horrela, lortutako mailek gomendatzen dutenean, zarata murrizteko gailuak egokitu ahal izango dira.

- **Giza habitatean sortzen diren beste eragozpen batzuk gutxiagotzea**

Dokumentu guztiek izango dituzte airearen kalitatea babesteko neurriak, hala nola esekiduran dauden hauts-partikulen neurketak –ingurumen atmosferikoa babesteko 38/72 Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/75 Dekretuan islatzen dira esekiduran dauden hauts-partikulei dagokienez onar daitezkeen gehieneko mailak–. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ondorio horretarako finkatzen duena ere hartu beharko da aintzat. Horietan oinarrituta gaituko dira adierazitako ingurunea babesteko mekanismo egokiak, hala nola aldian behingo ureztatzeak.

Proposamenen kokalekuetatik hurbil dauden herritarrei egin beharreko desbideratzeak, zerbitzu-eteteak eta abar ohartarazteko moduak ere finkatuko dira, eta proposamen horien ondorioz kalte gehien jasango duten etxebizitzen eta herritarren intimitatea zaintzeko beste neurri batzuk ere hartuko dira kontuan.

## 6.5.- NEURRI KONPENTSATZAILE OROKORREN PROPOSAMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa aplikatzearen ondorioz sortu diren eta zuzendu ezin diren zenbait eragin konpentsatzeko jardunak dira.

Kasu horien barruan daude balio naturalistiko handiko espazioetako ertzetan sortzen diren eraginak konpentsatzeko hartzen diren neurriak, baldin eta Lurraldearen Arloko Plana aplikatzearen ondorioz erabilerak aldatzen badira kokatzen direneko esparruetan. Kasu horietan eraginpean dauden elementu naturalistikoak birjartzeko esparru alternatibo batzuk finkatu ahal izango dira.

Jardun konpentsatzaile horiek lur-hondakindegi berriak tratatzeko estrategiekin osatu ahal izango dira. Lur-hondakindegi horiek azpiegituren edo hirigintzaren arloko esku-hartzeetako batzuen emaitzazkoak dira. Lur-hondakindegi horien plataformak leheneratzeko aukera planteatu ahal izango da balorizazio naturalistikorako edo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen intentsiborako zona estrategiko gisa.

## 6.6.- INGURUMEN INPAKTUEN BATERAKO EDO BANAKATUKO EBALUAZIOETAN SARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Hiri-plangintza garatzen duten tresnak baterako ebaluazioen mende egon beharko dute. Plan honen ondoren, baterako ebaluazio horietan honako alderdiak justifikatu eta baloratu beharko dira:

- Ibai-ertzak hiri-zonekin eta zona urbanizagarriekin okupatzeko proposamena.
- Hiri-okupazioko proposamenetan ibai-ibilguekiko gutxieneko atzerapenak.
- Hiri-okupaziorako proposatutako zonak kontserbatzeko balioa.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako 3. Eranskinaren interes naturalistikoko eremuak barne hartzeko kontrola.

Lurraldearen Arloko Planean aintzat hartzen diren jardunen kasuan egin beharreko inpaktuari buruzko banakako azterlanetan, berriz, honako alderdiei jarri beharko zaie arreta:

- Lur-higiduren kontrolari.
- Kontserbaziorako balio handiko zonen gainean ahalik eta eraginik txikiena.
- Lehentasunez egitura bigunetan eta erraz mugi daitezkeenetan oinarritutako diseinua.
- Zaraten kontrola eta obren aldi baterakotasuna.
- Lur gaineko eta lurpeko uren poluzioaren kontrola.
- Sarbideen kontrola eta bisitagarritasun onargarria.

## 6.7.- DESKRIBATUTAKO NEURRIEN BETETZE MAILAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

Hurrengo kapituluan aztertuko da kapitulu honetan aintzat hartu diren neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen betetze-mailaren eta eraginkortasunaren jarraipena egiteko adierazleen azterlana.

# 7.- PLANAREN ONDORIOAK INGURUMEN ARLOAN BERRAZTERTZEKO PROGRAMA

## 7.1.- KONTROLAREN HELBURUAK

183/2003 Dekretuaren 3. Eranskinaren 7. puntuan aditzera ematen den bezalaxe, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanean sustatzen den kontrolaren helburuak izango dira: Plana zuzen aplikatzen dela egiaztatzea; aurreikusitako neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzearen ebaluazioa eta jarraipena egitea; eta Plana abian jartzeak aurreikusitakoaz eta onartutakoaz bestelako ingurumen-inpaktu adierazgarririk sortzen ez duela egiaztatzea.

Helburu horrekin proposatu da Berraztertzeko Programa. Programa horrek helburu bikoitza izango du. Batetik, neurri babesleak eta zuzentzaileak abian jartzen direla ziurtatuko da; eta, bestetik, jarraipen sistematizatuaren bitartez, neurri horien ondorioen ebaluazioa bermatuko da, eta azterlanean aurreikusitakoez bestelako ingurumen-inpaktuak sortzen ez direla zainduko da.

Laburbilduz, Planaren ondorioen Jarraipen Programaren helburua izango da baliagarri izatea Planean proposatutako ingurumen-neurriak betetzen direla ziurtatzeko eta, hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa berregokitzen dela bermatzeko –betiere garapen iraunkorraren ildotik, eta ingurune fisikoaren eta baliabide naturalen gehieneko babesaren aldetik–.

## 7.2.- JARRAIPENAREN MENDE DAUDEN INGURUMEN ARLOKO SISTEMA, ALDERDI ETA ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA

Bi motatakoak izango dira jarraipenaren mende dauden sistemak, alderdiak eta aldagaiak. Batzuk Planaren berariazkoak izango dira, arauzko proposamen nagusien ingurumen-ebaluazioarekin lotzen direnak eta ertzen lurralde-mailako erregulazioa egiten dutenak. Besteak, orokorrak, indarrean dagoen legeriari jarraituz lurraldean zein ingurune naturalean eragina duen edozein hirigintzako eta azpiegituretako esku-hartzeri aplika dakizkiokeenak.

Azken horien artean honakoak zerrenda daitezke:

- Espazio naturalak eta beste enklabe interesdun batzuk babestea.
- Ibilguak babestea.
- Landaredia eta fauna berezia babestea.
- Nekazaritza-balio handiko lurzoruak babestea.
- Balio kulturalak babestea.
- Atmosferaren kalitatea babestea.
- Soinu-maila kontrolatzea.
- Sistema hidrogeologikoa babestea.
- Landaredia babestea.
- Fauna babestea.
- Higaduraren aurkako babes-lanak, ingurumena leheneratzeko lanak eta integrazio paisajistikoko lanak kontrolatzea.

- Lurraldearen iragazkortasuna mantentzearen eta eraginpean dauden zerbitzuak birjartzearen kontrola.
- Hondakindegiak kontrolatzea.
- Garbiketa-lanak kontrolatzea.

## 7.3.- ADIERAZLEAK FINKATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren dokumentua espazio-iritsiera handiko eta denbora-espektro zabaleko lurralde-antolamenduko tresna orokorra da. Hori dela eta, ez du zentzurik proposamen horien aplikazioaren ondoriozko ingurumen-inpaktuaren jarraipena egitea berariazko esku-hartzeen, obra zehatzen edo lurralde-garapen mugatuen kontrolarekin lotzen diren adierazle kuantitatiboen bitartez.

Kasu horretan, egokiagoa da Planaren lurralde-mailako esku-hartzeen eragin orokorra ebaluatzea –garapen iraunkor integralaren eta ingurunearen gaineko eragin orokorraren terminoetan– ahalbidetuko duten adierazle edo aldagai kualitatiboak aintzat hartzea, batez ere Planean aintzat hartzen diren ingurumena babesteko neurrien birtualtasun-maila kalibratzeko aukera emango dutena.

Hala ere, berariazko sistema, alderdi eta aldagai sektorialen jarraipenarekin lotzen diren adierazle konbentzionalago batzuk ere ezar daitezke. Adierazle horiek modu objektiboan jar daitezkeen aldagai kualitatibo gisa konfigura daitezke kasu batzuetan.

Kasu horietan, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketak arautUtako lurralde-araudiarekin bat eginik bideratuko diren etorkizuneko ingurumen-dokumentuetan aurreikusitako neurriak aintzat hartzen direla modu kuantifikatuan eta sinplean egiaztatzeko aukera emango diguten adierazleak formulatu ahal izango dira Adierazleen Jarraipen Programan. Adierazle horietako batzuk, eta horiek aintzat hartzeko atalaseak, 7.4. idatz-zatian aztertuko dira.

## 7.4.- ADIERAZLE IZAN DAITEZKEENEN ZEHAZTAPENA

Bi multzo handitan bereiz daitezke Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlaneko jarraipen-programan aintzat hartzen diren adierazleak: batetik, legez babestutako prozedura eta atalase-balioa duten alderdiak, eta, bestetik, balizko alerta-atalaseak ezarrita dituzten gainerako alderdiak.

Ondoren, balizko adierazle horietako zehaztapena garatu da, kasuak kasu lortu nahi den helburua eta proposatutako alerta-atalasea definituz.

- Espazio naturalak eta beste enklabe interesdun batzuk babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Eraginez babestea Parke Naturalak, Natura 2000 sareko espazioak, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek definitutako espazioak, eta abar.

*Adierazlea eta atalase-balioa*. Proposamen horien eta espazio horien arteko balizko elkargunea. Babesten dituen araudian bertan ezarriko dira atalase-balioak.

- Ibilguak babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Eraginpean dauden ibaien eta erreken egoerak okerrera egiten ez duela ziurtatzea. Uren kalitatea babesteaz gain, baldintza morfologikoak eta paisajistikoak eta ur-hustuketako sekzioak mantendu nahi dira.

  *Adierazlea eta atalase-balioa*. Ibilguen gaur egungo baldintzak mantentzea. Indarrean dagoen araudian ezarritako mugek zehaztuko dituzte alerta-atalaseak, eta zehazki honako xedapenek: 927/88 Errege Dekretuak, uztailaren 29koak, Uraren Administrazio Publikoa eta Plangintza Hidrologikoa onartzen duenak -Uraren Legearen II. eta III. Tituluen garapenean-, eta 995/2000 Errege Dekretuak, uztailaren 2koak, zenbait gai poluitzailerako kalitate-helburuak finkatzen dituenak eta urriaren 11ko 849/1998 Errege Dekretu bidez onartutako Jabari Publiko Hidraulikoa aldatzen duenak.

- Landaredia eta fauna berezia babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Proposamen berriek jardun-esparruko espezie berezien banaketa-eremuetan eragina izan dezaten saihestea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa*. Espezie bereziak agertzea. Honako arauak izango dira aplikatzekoak: 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena; 167/1996 Dekretua, ekainaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena; 1997ko uztailaren 8ko Agindua eta uztailaren 10eko Agindua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan beste espezie batzuk sartzen dituena; Bonngo Hitzarmena, basa animalien espezie migratzaileen kontserbazioari buruzkoa; Bernako Hitzarmena, Europako basa bizitzaren eta ingurune naturalaren kontserbazioari buruzkoa; 92/43/EEE Arteztaraua, habitat naturalen eta basa faunaren eta floraren kontserbazioari buruzkoa; 79/409/EEE Arteztaraua eta 91/294/EE Arteztaraua, basa hegaztien kontserbazioari buruzkoak; 439/90 Dekretua, Espezieen Katalogo Nazionalari buruzkoa, eta aurrekoa osatzen duen 19/1977 Errege Dekretua; eta abar.

- Nekazaritza-balio handiko lurzoruak babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Lurraldean dauden nekazaritza-ahalmen handiko lurzoruak babestea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa*. Nekazaritza-ahalmen handiko lurzoruak agertzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapenari atxikitzen zaizkion gomendioek zehaztuko dute onar daitekeen atalasea.

- Balio kulturalak babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Lurraldean dauden interes kulturaleko balioak zaintzea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa*. Katalogatutako edo inbentariatutako elementuak agertzea proposamenen eraginpean egon daitekeen lurraldean, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Kultura Ondarearen Zentroari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren Kultura Zuzendaritza Nagusiari egin beharreko kontsulten arabera. Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean eta hori garatzen duen gainerako araudian ezartzen dira atalase-balioak.

- Atmosferaren kalitatea babestea.

  *Lortu nahi den helburua*. Inguruneko herritarrengan, faunarengan eta landaredian eragina izango duen hautsa sor dadin saihestea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa*. Esekiduran dauden hauts-partikulak neurtzeko neurriak. Ingurumen atmosferikoa babesteko 38/72 Legea garatzen duen otsailaren 6ko 833/75 Dekretuan onartzen diren gehieneko mailek finkatuko dute alerta-atalasea. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ondorio horretarako finkatzen duena ere hartu beharko da aintzat.

- Soinu-maila kontrolatzea.

  *Lortu nahi den helburua.* Proposamen berrien kokalekuaren inguruko herritarrei eragozpenak sor dakizkien saihestea, baita proposamenak ezartzen diren zonetako faunaren bizitza eta garapen normala arriskuan jarriko duten eragozpenak saihestea ere.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Neurketa akustikoen proposamena. Herri-lanetako makineriaren zaratari buruzko araudiak onartzen dituen gehieneko mailek finkatuko dute onar daitekeen atalasea: 212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, aire zabalean erabiltzeko makina jakin batzuen ondorioz ingurunean sortzen diren soinu-emisioak arautzen dituena; 79/113/EEE Arteztaraua; 84/533/EEE Arteztaraua, 85/406/EEE Arteztarauak aldatua; 84/534/EEE Arteztaraua, 87/405/EEE Arteztarauak aldatua; 84/535/EEE Arteztaraua, 85/408/EEE Arteztarauak aldatua; 84/537/EEE Arteztaraua, 85/409/EEE Arteztarauak aldatua; 86/622/EEE Arteztaraua, 89/514/EEE eta 95/27/EEE Arteztarauek aldatua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak eta beste xedapen batzuek ondorio horietarako ezartzen dituzten zehaztapenak.

- Zabortegien eta hondakinen kontrola

  *Lortu nahi den helburua.*
  Proposamen berriek soberakinen behin betiko biltegi-eremuen kokalekuak egoki hautatzen dituztela ziurtatzea, hondakinen kudeaketa behar bezala planteatzen duten aldetik.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Soberakinen eta hondakinen kudeaketa. Honako xedapenek ondorio horietarako agindutakoa ezarri da atalase-balio gisa: 423/1994 Dekretuak, azaroaren 2koak, hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzkoak; 10/1998 Legeak, apirilaren 21ekoak, hondakinei buruzkoak; 833/1988 Errege Dekretuak; 952/1997 Errege Dekretuak; eta abar. Era berean, erabilitako olioen eta mundrunen aipamen espresa egingo du. Hondakin toxiko eta arriskutsu gisa tratatuko dira. Bestalde, hondakinei buruzko 10/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan erabilitako olioen kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Errege Dekretuan, eta horiekin bat datozen gainerako araudietan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

- Sistema hidrogeologikoa babestea.

  *Lortu nahi den helburua.* Proposamen berrien eraginpean egon daitezkeen lurraldeetan ageri diren baliabide hidrogeologikoak zaintzea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Akuiferoak eta horiek kargatzeko eremuak babestea, baita nekazaritza edo abeltzaintzarako eta ur-hornidurarako erabiltzen diren ur-puntuak ere. Hiru alderdik finkatuko dituzte atalase-balioak: lehena, proposamena eta eremuan interes handiena duten akuiferoak elkargurutza daitezen saihesteak; bigarrena, gainerako akuiferoetan neurri murriztaileak ezartzeak, akuifero horiek polui daitezen saihesteko; eta hirugarrena, akuifero horiek eraginik jasan badute, lehenera daitezen lortzeko beharrezko

neurri guztiak barnean hartu beharrak.

- Landaredia babestea.

  *Lortu nahi den helburua.* Landaredia interesduna duten eremuak babestea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Babes hori posible egiten duten neurriak –zuinkatzeak esate baterako– proiektuetan egiaztatzea.

- Fauna babestea.

  *Lortu nahi den helburua.* Faunaren iragazkortasuna ziurtatzea proiektatzen diren drainatzeen eta egituren bitartez.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Babes hori posible egingo duten neurriak egiaztatzea proiektuetan, hala nola hesi osagarriak, atakak eta ihes-arrapalak.

- Higaduraren aurkako babes-lanak, ingurumena leheneratzeko lanak eta integrazio paisajistikoko lanak kontrolatzea.

  *Lortu nahi den helburua.* Proposamen berriak lurraldean egoki integratzen direla ziurtatzea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Obra ingurunean integratzea. Atal honen helburu diren neurrien azterketa zehatzak finkatuko ditu atalase-balioak. Neurri horien artean honakoak sartuko dira gutxienez: landare-lurra kontrolatzea eta kentzea, lurra prestatzea, landare-lurra zabaltzea, ereite hidraulikoa egitea, ereitea eta landatzea.

- Lurraldearen iragazkortasuna mantentzearen eta eraginpean dauden zerbitzuak birjartzearen kontrola.

  *Lortu nahi den helburua.* Eraginpean dauden zerbitzu guztiak birjarriko direla egiaztatzea eta, horrela, bideak berraztertzen direla ziurtatzea –landa-bideak barne–.
  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Iragazkortasun-maila eta zerbitzuak mantentzea. Azaldutako helburua bermatzeko, proposamenek jasan behar duten analisiak ezarriko du atalase-balioa.

- Garbiketa-lanak kontrolatzea

  *Lortu nahi den helburua.* Amaitutakoan, proposamen berriak egoki akabatuta daudela ziurtatzea.

  *Adierazlea eta atalase-balioa.* Obren ondorengo garbiketa. Proposamenetan obretako

soberakinak behar bezala ezabatzeko jasotzen diren neurriek finkatuko dute atalase-balioa.

## 7.5.- BERRAZTERTZEKO PROGRAMA

Ingurumena Berraztertzeko Programaren diseinuak lotuta egon beharko du lurralde-antolamenduko ekintzen pixkanakako garapenarekin –edonola ere, ekintza horiek Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa honen ondorengo lurralde-plangintzako eskalak izango dira–.

## 8.- LABURPEN DOKUMENTUA

Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana –isurialde mediterraneoa– abenduaren 28ko 455/1999 Dekretu bidez onartu zen behin betiko.

Ondoren, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arauzko garapen gisa.

Oraingoan Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana –isurialde mediterraneoa– aldatzearen komenigarritasuna dago aztergai. Izatez, Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuari uholde-arriskuaren mailaren araberako lurzoruaren erabilerari buruzko irizpide berriak txertatu behar zaizkio, baita Uren Zuzendaritzak berriki landu dituen uholde-arriskuari buruzko mapak ere. Horrez gain, Natura 2000 Sarearen barruan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa izendatutako espazioen berariazko erregulazioa ere hartu beharko da aintzat, eta espazio horiek planoetan identifikatu eta kokatu beharko dira, betiere Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren adierazpenen arabera. Bestalde, Lurraldearen Arloko Planaren edukiak homologatu egin beharko dira Europar Batasuneko 2000/60/EE Uraren Esparru Arteztarauaren xedapenekin eta Eusko Legebiltzarreko Uraren 1/2006 Legearen xedapenekin –Lurraldearen Arloko Plana indarrean jarri ondoren onartutakoak–.

Funtsezko izaera ez duen aldaketa bat denez gero, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren arabera bideratu beharko da –Lurraldearen Arloko Planen, besteak beste, ez-funtsezko aldaketak onartzeko prozedura arautzen du Dekretu horrek–.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketak –isurialde mediterraneoa– ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren izapidearen mende egon beharko du. Hori dela eta, idatzi da honako ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlanaren dokumentu hau, betiere 183/2003 Dekretuan ondorio horretarako ezarritako xedapenen arabera.

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlan honetan, Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren helburu estrategikoak azaldu dira: ibilguen eta ertzen babes eta kontserbazio naturalistikoa finkatzea, uholdeen prebentziorako neurriak hartzea, eta ibaien ertzetako hiri-plangintza arautzeko lurralde-antolamendu iraunkorra ezartzea.

Ondoren, aintzat hartutako antolamendu-alternatibak ebaluatu dira, plana aplikatzearen ondorioz ibilguetan eta ertzetan egin beharreko esku-hartzeak deskribatu eta aztertu dira, eta sor daitezkeen ingurumen-inpaktuak identifikatu eta ebaluatu dira.

Azkenik, neurri babesleak, zuzentzaileak eta, hala badagokio, konpentsatzaileak hartzea proposatu da, eta planaren ondorioak berraztertzeko programen oinarrizko ezaugarriak ezarri dira.

Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen isurialde mediterraneoko ibai-

ertz guztiak hartzen dituen oso lurralde-antolamendu orokorreko dokumentu bat denez gero, inpaktuen analisi-maila eta neurri babesleen eta zuzentzaileen finkatze-maila lurralde-eskala handi baten orotariko ikuspegitik finkatu da. Izan ere, ondorengo garapeneko planetan, programetan eta proiektuetan finkatu beharko dira doitasun-maila handiagoarekin zehaztapen horiek.

Laburbilduz, honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren (isurialde mediterraneoa) eduki nagusiak:

- Natura 2000 sarean ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa onartutako espazioetarako berariazko erregulazioa txertatzea eta espazio horien zerrenda eta identifikazio-planoa gaineratzea, betiere Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren adierazpenen arabera.

- Uren Zuzendaritzak landutako uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak txertatzea, berriki egin diren azterlan hidraulikoak abiapuntu izanik.

- Uren Zuzendaritzak landutako "Uholde-arriskuaren mailaren araberako lurzoruaren erabileraren irizpide" protekzionistak txertatzea Lurraldearen Arloko Planak aztergai dituen ertzak antolatzeko finkatutako lurralde-erregulazioan.

- Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Europar Batasunaren 2000/60/EE Uraren Esparru Arteztarauarekin eta Eusko Jaurlaritzaren 1/2006 Legearekin (Uraren Legearekin) homologatzea.

Helburu horiek lortzearen ondorioz ingurumenaren gainean sor daitezkeen eraginak lagungarriak izango dira, inolako zalantzarik gabe, ingurumen-baliabideen zaintza areagotzeko eta ingurumenaren babesa gehitzeko, 2002-2020ko Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategiarekin bat eginik. Izatez, Lurraldearen Arloko Planaren araudian, parametro erregulatzaile are babesleagoak gaineratuko dira –ingurumenaren ikuspegitik zein ikuspegi naturalistikotik–.

## 9.- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketak, funtsean, arauzko erregulazioaren izaera duenez gero, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioko dokumentu honek ez du berariazko dokumentazio grafikorik.

Horrenbestez, indarrean dagoen Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (isurialde mediterraneoa) oinarrizko dokumentazio grafikora jo beharko da, baita Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketaren dokumentazio osagarri gisa txertatu diren uholde-arriskuari buruzko mapen eranskinera eta ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Lekuen identifikazio eta kokalekuko eranskinera ere.